



## Ezkurdia Txapeldun!

Lau t'erdiko txapela Sakanara ekarri zuen arbizuarrak final ikusgarrian / 12/13/17

# EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

**m**  
 Mondragon  
 Unibertsitatea  
 Goi Eskola  
 Politeknikoa

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!  
 902 110 436  
[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

Arranomendia 2. ORDIZIA — 943 88 00 62 — [bulegoa@goierrieskola.org](mailto:bulegoa@goierrieskola.org)



INGENIARITZA GRADUETAKO  
 ATE IREKIAK

GOIERRIKO  
 CAMPUSA

**AZAROAK 29**  
 OSTEguna 17:30 / ARETO NAGUSIA

**OTSAILAK 2**  
 LARUNBATA 10:30 / ARETO NAGUSIA



Igandean ongi etorria egin zioten Euskaraldiari. 208 pertsonak parte hartuko dute Irurtzun eta Arakilen. PIKUXAR

# Euskararekin jarrera hartzera

Sakanako populazioaren % 10,84k, 2.189 sakandarrek, gaurtik aurrera ariketa individual eta, aldi berean, kolektibo batean parte hartuko dute: Euskaraldia. Hizkuntzarekiko jarrera hartuko dute eta, horrela, euskararen erabileran eragingen dute

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

Sakandar ugari txapa mustu dute gaur. Jertsean, berokian, bufandan, txanoan... aldean daramate toki ikusgarri batean. Gaur hasi eta 11 egunez, Euskararen Eguna arte. Gaur mustu diren txapa horietan bi irudi daude: ahoa edo belarria. Txapa horiek daramaten sakandarrek erabaki bat hartu dute: euren hizkuntza ohiturak aldatu nahi dituzte. Eta txapa bidez jakinarazi nahi digute 11 egunez euskararekiko jarrera aktibo bat hartu dutela. Jarrera bai,

ariketak ez baitu zerikusirik euskararen ezagutza mailarekin.

Txapan aho baten marraskia dutenak Ahobiziak dira. Beraiek orain arte euskaraz izan dituzten elkarrizketek euskarazkoak izaten jarraituko dute, baina orain arte erdaraz izandako elkarrizketa batzuk euskaraz edo ele biz izatea ere lortuko dute. Horretarako, euren harreman sarean hizkuntza praktikak aztertu eta euskarara aldatzeko aukera duten horietan eragingo dute. Harreman horietaz aparte, 11 egunetan bere bizitzako es-

parru guztietan euskaraz arituko da, ahal den guztietan, ahal duen guztiekin. Horretarako jarrera aktiboa izanen dute.

Txapan belarri bat dutenak Belarriprestak dira. Haiek ere orain arte euskaraz izan dituzten elkarrizketak euskarazkoak izaten jarraituko dute, baina orain arte erdaraz izandako elkarrizketa batzuk euskaraz edo ele biz izatea ere lortuko dute.

Haiena ere jarrera aktiboa izanen da eta, beraz, gonbidapena egingen diete euskal hiztunek eurekin euskaraz hitz egin

dezaten. Belarriprestek jabetu behar dute euren funtzioa oso garrantzitsua dela, euskarazko elkarrizketak sortzen lagundu eta euskara erabiltzeko giro babestua sortuko dutelako. Aldi berean, Euskaraldiak irauten duen bitartean Belarriprestek giro babestua izanen dute, ahobizi eta belarriprest ugari izanen baitituzte 11 egunez Euskal Herrian.

Arrazoi bat dela, bestea dela, bateko eta besteko rolak hartu dituzten pertsonen artean ilusioa sumatzen da. Jendeak ederki asko ulertu du Ahobizi rola, euskaldunei askotan eskatu zaielako euskaraz hitz egitea. Belarriprest rola kontu berria da eta, beraz, bere garrantziaz jabetzea kostako dela uste da. Datuek alde hori erakusten dute Euskal Herrian izena emandako 196.000 pertsonen % 74 Ahobizi dira, Sakanan % 79. Belarriprest, berriz, Euskal Herrian % 26 eta Sakanan %21.

## Belarripresten garrantzia

Martxan jarri den ariketa kolektiboaren berritasuna da ez dagoela soilik euskaldun osoei zuzenduta. Ez dutela soilik eus-

karaz erraz hitz egiten eta ulertzen duten pertsonak parte hartu behar. Jendartearen gero eta jende gehiago dago euskara hitz ez egin arren hizkuntza ulertu egiten duena. Batez ere gazteen artean eta irakaskuntzaren eraginez. Euskara haien bizitzaren erdigunean ez dago, baina parte bat da.

Eta Euskaraldian ere haiek erreparatu zaie, Belarriprestei. Hizkuntza ulertzen dutenez, euskarazko elkarrizketa batean parte hartu dezaketelako. Gutxi ulertzen dutenen kasuetan ere, erraztasunak emanez, haiek ere euskaraz hizketatzeko aukera dago. Eta horrek zein ondorio duen? Lehen gaztelaniaz ziren elkarrizketak hizketaldi elebidunak bihurtzea. Pertsona bat euskaraz aritzea eta bestea gaztelaniaz, edo euskara tarteatuz hizketatzea. Eta horren ondorioa da bi hiztunak maila berean jartzen direla, baten hizkuntzak ez duela beste zapatzen. Baita euskara gehiago entzuten dela.

Baina hizkuntza ulertzen duten pertsonekin euskaraz hitz egiteak badu beste ondorio bat: pertsona horiek pixkanaka gero



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com





Etxe pasiboetarako egokia  
5 9000



Isolamendu nukleo indartsua



Beirak lehorrean jarrita



Aparteko azala koloreztatua

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Altsasun ere igandean egin zioten ongi etorria. Guztira 578 ahobizik eta belarriprestek parte hartuko dute Altsasun.

eta gehiago entzuten dute euskara, beraz, errazago izanen zaie hizkuntza ezagutzeko. Horrek, Belarriprest izatetik Ahobizi izatera pasatzeko saltoa erraztuko die bati baino gehiagori.

**Zergatik 11 egun?**

Galdera horri beste galdera batekin erantzuten dizugu irakurle: astegunetan eta asteburuetan gauza berak egiten dituzu? Erantzuna ezezkoa da. Horregatik, Euskaraldiak bi asteburu eta astegunak hartu ditu. Gainera, ariketa ez zen luzatu nahi, jendeari nekagarria ez suertatzeko. Hizkuntza ohituretan eragiteko nolabaiteko probaldia dira 11 egun horiek. Gero atsedean hartu eta nor bere kabuz aurrera segitzeko.

Hau guztia aurretik esperimentatuta dago. Lutxo Egia hilabete batez euskaraz bizi izan zen Bilbon 2016an. Lasarte-Orian 40 egunez aritu ziren. Pasa den urtean Agurainen, Arrigorriagan eta Baiona, Angelu eta Miarritze eskualdean ere esperientziak izan ziren.

**Ondorioak**

Euskaraldia behar bezala prestatzeko herriek eman behar izan

**PARTE HARTZEA:**  
**EH-N 196.000**  
**PERTSONA, GUZTIEN**  
**% 6,24. NAFARROAN**  
**20.500, 3,19**

dute lehenik izena. Irurtzunen edo Olatzagutian euskara taldeak daude eta errazagoa izan da pauso hori. Euskalgintzako talderik ez dagoen edo ahul dagoen herrietan gehiago kostatu da jendea elkartzea, urratsa ematea eta egituratzea. Horretarako, ere balio izan du Euskaraldiak, euskaltzaleak aktibatzen. Gainera, zenbait herrietan aurpegi berriak ikusi dira.

Ariketan izena eman duten pertsonak dagoeneko Soziolinguistika Klusterraren (SK) galdegegia erantzun dute. Euska-

raldia despeditu berritan beste bat erantzun beharko dute eta ariketa bukatu eta hiru hilabetera azkena. Ikerketa zabala egingen du SKk eta, horrekin, ariketak euskararen erabileran zein aldaketa lortu diren edo zein eboluzio izan den jakiteko aukera izanen da.

Halako ariketa baten neurketa egin zuten Lasarte-Orian eta jendeak aitortu zuen euskara gehiago erabiltzen zuela, % 61etik %81erako saltoa eman zuen. Sakanan 2.189 pertsona horien jarrerak esanen du.

**Euskaraldiko parte-hartzaileak**

Herria	Ahobizi	Belarriprest	Guztira
Irurtzun+Arakil	128	80	208
Irañeta	18	3	21
Uharte Arakil*	82	21	103
Arruazu	38	11	49
Lakuntza	203	60	263
Arbizu	210	23	233
Lizarraga	43	5	48
Etxarri Aranatz	293	33	326
Bakaiku	51	11	62
Iturmendi	19	2	21
Urdiain	90	12	102
Altsasu	426	152	578
Olatzagutia	106	37	143
Ziordia	23	9	32
<b>Guztira</b>	<b>1730</b>	<b>459</b>	<b>2189</b>



**ARRUAZU**

**Azaroak 25, igandea**  
 18:00etan Amama filma, elkartean.

**LAKUNTZA**

**Azaroak 23, ostirala**  
 18:00etatik 19:00etara Izen emateko aukera eta txapa banaketa, plazan.

19:00etan Euskaraldiaren suzuria, udaletxeko balkoitik. Ahobiziren eta Belarripresten pregoia. Hamaikakoak. Pintxo-potea plazan. Lakuntzako musikariekin poteoa.

**Azaroak 25, igandea**  
 10:00etan Ezagutu basoko zuhaitz eta landareak irteera. Adin guztiendako. Plazatik.

**Azaroak 28, asteazkena**  
 18:00etan Lakuntzakide. Guuten eñien du? Gure Nahia elkartean.

**ARBIZU**

**Azaroak 23, ostirala**  
 19:00etan Txapa banaketa, plazan.  
 19:30ean Hasiera ekitaldia plazan: txupinazoa, xanpaina, herri-argazkia... plazan.

**LIZARRAGA**

**Azaroak 23, ostirala**  
 19:30ean Bautista Lasak euskararen alde sortutako abestia berreskuratu eta tripoteoan kantatuko dute, frontoian.

**ETXARRI ARANATZ**

**Azaroak 23, ostirala**  
 19:00etan Izen ematea, txapa banaketa eta auzatea, plazan.

**BAKAIKU**

**Azaroak 23, ostirala**  
 19:00etan Euskaraldiaren hasiera ekitaldi festa: txapa banaketa, pintxoak, musika eta beste, elkartean.

**URDIAIN**

**Azaroak 23, ostirala**  
 19:30ean Txapa banaketa eta pintxo-potea, gaztetxean.

**OLATZAGUTIA**

**Azaroak 23, ostirala**  
 18:00etan Euskaraldia hasiera plazan. Txapa banaketa. Txapak elkarrekin jarri eta talde argazkia egingen dute. Euskaraldiaren kantarekin dantza egingen dute.

**Azaroak 24, larunbata**  
 11:00etan Haurrendako jolasak, gaztetxean.

13:00etan Poteoa herrian zehar.

14:30ean Bazkaria, gaztetxean, ondoren Euskaraokea.

18:00etan Pankarta eta mural margotzea.

20:00etan Euskal poteoa eta gauean parranda.



ASTEKOA

MARIAN MENDIOLA BARANDALLA

## Nor-tasuna

Ez dakit aurreko astean Guaixe irakurtzeko aukera izan zenuten, baina, gomendatzen dizuet bistadizo bat botatzea Raf Atxurik idatzitako "C's-eko legioari galdera zenbait" zutabeari. Botatzen dituen galdera samaldarekin asko esaten du. Normalean ez ditut aldameneko zutabegileen burutazioak aipatzen, baina Altsasu bere osotasunean hartzeko galdera interesgarriak, iradokitzaileak eta eraikitzaileak direlako ekartzen ditut berriz ere hona. Honatx nire irudipenak (irudikeriak, agian) eta burutazioak:

Lehenik, galderez baliatuz, mahai-joko moduko bat egiten du, "Altsasu-Alsasua" fenomenotik harago herriaren nor-tasun argi eta garbia azaltzeko eta herritarrak ezagutzeko. Galdera horiek guztiekin eta beste hamaika gehiagorekin ere, tribial modukoa egin daitekeela uste dut, herria ikustea, ezagutzea eta entzutea nahi duen ororentzat.

Bigarrenik, artikuluarri amaiera ematen dion esaldia irakurri dudanean, "Zergatik ez duzue ikusten, zergatik ez duzue ikasten? Zergatik ez duzue entzuten? Zergatik ez diozue bake pixka ematen munduari?", tximuen irudi ospetsua etorri zait gogora. Galdera horiek hiru tximu elkarren ondoan jarrita azaldu zaizkit: bata belarriak eskuekin estaliz, erdikoa ahoa estaliz eta hirugarrena begiak tapatuz.

Hirugarrenik, zer, non, nor, noiz eta nola galderez baliatzen da, kazetariak, Euskaraldirako sortutako bideo tutorialean edota jakintza gosez dauden pertsonak egiten duten antzera.

Eta azkenik, herri nor-tasuna eta identitatea hizpide jartzen du. Honek, tentazioa sortu dit galdera horiek guztiak eta sor daitezkeen gehiago gaika sailkatzeko. Eta horretarako, neroni ere galderak egiten hasi naiz. Bada Raf-en testu honetan hizkuntzari erreferentzia egiten dion galderarik? Eta gastronomia, artea, tradizioak edo kirola bezalako kultur adierazpenen ezagutza neurtuko duen galderarik? Eta nortasuna edo beste gizarte gai batzuen inguruko galderarik? Nik esango nuke baietz.

Euskaltasuna eta euskal kultura aztertzen eta ikertzen dutenen antzera egin daiteke hemen ere, Altsasuartasuna eta herri izaera azaleratu eta kanpotik hautematen dena hankaz gora jarritz.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoko: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Arazo elektrikoak Etxarri Aranatzten

#### IRATXE KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA

Iratxe Kontsumitzaileen elkarteak Etxarri Aranatzeko bizilagunek gutxieneko kalitate galdagarria duen horniketa elektrikoaren izan dezaten lortu du. Dozenaka pertsona gerturatu dira Sakanako Udalaren Kontsumitzailearen Informaziorako Bulegora horniketa elektrikoaren urritasunak sortutako etenaldiak, potentzia arazoak eta matxurak azaltzeko.

Dirudienez, sare elektrikoak ez zuen kapazitate nahikorik zegoen energia-eskaerari aurre egiteko. Horregatik, zenbait kontsumitzailearen arabera, asteburuetan (eskualdeko industria metalurgikoaren ohiz kanpoko eskaerarekin bat

etorri) zenbait gailu elektrikoek ez zuten behar bezala funtzionatzen.

Hala, hozkailu, labe eta bitrozeramika-sukaldeak akatsak zituzten eta ez zuten zerbitzu egokirik ematen. Horrek guztiak adierazten zuen ez zegoela potentzia nahikorik eta tentsioa legeak baimentzen duenaren gainetik zegoela.

#### Labe edo lehorgailurik gabe

Egoera honen ondorioz, pertsona askok ezin zuen labearekin janaririk prestatu edo lehorgailurik erabili asteburuan zehar. Zenbait kasuetan, horniketaren irregulartasunek etxeko elektrotresnetan kalteak sortu zituzten, hala nola, hozkailu edo ikuzgailuetan.

Iratxek horniketaren kalitatearen arduraduna den banatzailearengana (Iberdrola) jo zuen horniketaren kalitatea eskariaren arabera egoki zedin beharrezko mantenu- neurriak eskatzeko. Aldi berean, jasandako kalteengatik kaltetutako bizilagun bakoitzarentzat kalte-ordainketa eskatu zuen.

Horrelakoetan erreklamazioen bidea xamurra ez bada ere, oraingoan banatzaileak bere gain hartu zituen gertatutakoa eta bere ondorioak. Ez dugu atzendu behar zerbitzu egokia emateko ardura tokian tokiko banatzailearena dela Legea eta hornidura kontratuaren arabera.

## OBJEKTIBOTIK



FAMIK

### Olentzerok mustuko duen estalopea itxura hartzen ari da

Etxarri Aranatzko estalope berriaren obrak aurrera doaz. Aste honetan zehar egurrezko

egitura duen estaldura jartzen izan dira, eta gaur bertan bukatzeko aurreikuspena

dute. Horregatik, kaldor festa egin zuten atzo, gerturatu ziren herritarrekin.

# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**Diseinu zerbitzua:**  
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua  
gk@komunikazioa.eus

**Administrazioa:**  
Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

**Zuzentzailea:**  
Patxi Flores Lazkoz

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**Maketatzailea:**  
Irene Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Maria Saez de Albeniz Bregaña  
publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**

# Plan Estrategikoaren balorazio bilera egingen da

Sakanako Plan Estrategikoa bukatzeko bi urte falta direnean Sakanako Sozio-ekonomia Behatokiak planaren ibilbidearen balorazioa eta berraztertzea egingen du. Prozesua asteazkenean, 17:00etan hasiko da, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan

## SAKANA

Finantza arloak eragindako krisiaren atzaparkadak arrasto sakona utzi zuen ibarrean eta, hortik, 2014-2020 Sakanako Plan Estrategikoa (SPE) sortu zen. Ibarreko eragileak Nafarroako Gobernuarekin harremanetan hasieratik izan ziren baina aldatuta izan arte, 2016ra arte, ez zen planerako finantziatorik lortu. Ordutik bi urte pasa dira eta beste bi gelditzen dira SPE bukatzeko.

## Otsailera bitarteko prozesua

Sakanako Mankomunitateko presidente David Oroz Alonsok aipatu digunez, "azken urte hauetan egindako lanaren eta lortutako emaitzen balorazio globala egiteko garaia" iritsi da. Horretarako, Sakanako Sozio-ekonomia Behatokiak (SSB) bilerara deitu ditu ibarreko eragileak asteazkenean, 17:00etan, Mank-en Lakuntzako egoitzan.

Bileran 2014-2018 zikloari buruzko Plan Estrategikoaren gauzatze-memoria aurkeztuko da, asteazkenean hasiko den prozesu osorako oinarria izango dena. Ondoren, herritarren parte-hartzea sustatzeko 3 jardunaldi egingo dira Altsasun, Etxarri Aranatzan eta Irurtzunen eta parte hartzeko atari bat jarriko



Sakanako Sozio-ekonomia Behatokiaren aurreko bilera bat.

da Sakanako Garapen Agentziaren web orrian ([www.sakanagaratzen.com](http://www.sakanagaratzen.com)). Erronkei, beharrei eta proposamenei buruzko ekarpenak egin ahal izango dira.

Prozesuak aurrera jarraituko du; Sakanako hainbat erakunderekin bilerak egingo dira, alderdi politikoetatik hasita, Plan Estrategikoaren garapenean inplikaturako elkarrekin, haien proposamenak jasotzeko, eta Foru Parlamentuak SPE babestu zuenez, legebiltzar-erronda ere egingo da. Bertan, Sakanako Garapen Agentziako lantaldeak

egindako azterketak eta gomendioak kontrastatzeaz gain, talde parlamentarioen ekarpenak jasoko dira.

Ilbeltzaren akaberan, prozesuan bildutako ekarpenekin azken dokumentua osatuko da eta Sakanako Behatoki Sozioekonomikoan aurkeztuko da, bere onarpenerako. Azkenik, onartutako dokumentua Nafarroako Gobernuari aurkeztuko zaio eta Sakanako Garapen Agentziak gomendio horiek ezartzeko laguntza eta jarraipen lanak hasiko ditu.

## Energia-kudeaketa adimendunaren aurkezpena

Asteartean, 11:00etan, Lakuntzako kultur etxean. Energia kontratuak automatizatuko dira

## SAKANA

Ibarreko 15 udalen kontsumo termiko eta elektriko guztiak momentuan zein diren kontrolatuko dira, eta horiek automatikoki eta eraginkorrako kudeatzeko aukera izanen dute udalek. Izan ere, Hispavista Labs enpresak garatutako e-Mehir plataforma ezarriko da. Plataforma bateratu horren bidez, udal zerbitzu nagusien kontrol automatikoa izanen dute denbora errealean. Ondorioz, udalek fakturak murrizteko aukera izanen dute.

Sakanako Garapen Agentziak ibarreko energia-kudeaketarako adimendun tresna hori aurkeztuko du asteartean. Sakanako Energia Plangintzaren oinarri izanen den tresnaren erabilpena azalduko du, kasu konkretuen adibideak erabiliz. Jardunaldiak doakoak dira, baina aurretik izena ematea komeni da [airiberri@sakanagaratzen.com](mailto:airiberri@sakanagaratzen.com) edo 674 143 990 bidez.

Nafarroako Gobernuak 2030erako Nafarroako Energia Planaren barnean antolatu duen II. Energia Hedatze eta Sentsibilizazio jardunaldien barruan dago Lakuntzako aurkezpena. Udalek energia trantsiziorako prozesuan duten eginkizuna aztertuko da..

## Agroekologia jardunaldiak, SGAK antolatuta

Fruta-arbolen udazken eta neguko zaintzak eta merkaturatze kolektiboak nola artikulatu aztertuko

## SAKANA

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) estreinako agroekologia jardunaldiak antolatu ditu. Bi saio izanen dira. Aurrenekoa, herenegun, frutagintzari eskainitako saioa izan zen eta Harri Herri frutagintza eta barazki-gintza proiektua ezagutzuz hasi ziren. Gero Andreu Vila Pascualek frutagintza ekologikoaren oinarriak azaldu zituen.

Agroekologiari buruzko jardunaldiak osatzeko SGAK azaroaren 30erako hitzordua jarri du, Utzuganen, 18:00etan. Nekazaritza produktuen merkaturatze kolektiboaz hizketatzeko Kordoba hegoaldeko Subbetica Ecologica elkarteak hiru bazkide etorriko dira: Barbara Fernandez Muñoz (kontsumitzailea), Francisco Gamiz Martínez (kontsumitzailea) eta Arrate Corres Velasco (ekoizlea). Ekoizle eta haiek babesten dituzten kontsumitzailek osatutako elkarteak eta bertako ekoizpen eta kontsumo ekologikoa sustatzea du helburu. Gaur egun elkarteak 450 bat familia eta erakundez osatuta dago. Saioa dohainik da baina izena eman behar da [nvia-na@sakanagaratzen.com](mailto:nvia-na@sakanagaratzen.com) e-postara idatziz edo 672 688 591 telefonora hots eginez.



107.3 FM  
**beleixe**  
guaixe.eus-en ON LINE  
Denboraldi berria

## Saioa 10:00 – 12:00

10:00 Egun on, prentsa eta eguraldia

10:15 Eguneko agenda

10:20 Albistegia

10:45 Eguneko elkarrizketak

11:15 Sarea: Esan Erran eta Aralar irratiko esatariekin

11:55 Saioren bukaera

# Arkeologia aztarnarik ez

Arantzadi zientzia elkarteko kideak Bakaikuko Hirimendi dermioan azaroaren 5ean izan ziren indusketak egiten eta ez zuten Burdin Aroko kastroaren arrastorik opatu. Mattin Aiestaran Arantzadi zientzia elkarteko arkeologoarekin hizketatu gara

**Alfredo Alvaro Igoa** BAKAIKU

Juan Mari Martinez Txoperena ilbeltzean Nafarroako Lurralde Zerbitzua ([www.sitna.navarra.es](http://www.sitna.navarra.es)) web orrian 1945eko argazkia begira zegoela topo egin zuen adituaren begira bereizgarria zen zerbaitekin. Bakaikuko Udalak antolatuta, Martinezek hitzaldia eman zuen apirilaren 6an. Hirimendi dermioan izandako Burdin Aroko kastro handi baten ebidentzien berri eman zuen gainezka zegoen elkartearen. Hitzaldiaren ondoren Bakaiku hego mendebaldera dagoen dermiora joan ziren, San Benito ermita baino beherago, eta han Martinezek azalpenak eman zituen. Gaiak herrian jakin-mina piztu zuen. Azaroaren 5ean, astelehenean, beste arkeologo bat bueltatu zen Hirimendiko dermiora, Arantzadi zientzia elkarteko Mattin Aiestaran. Hego-haizearekin eta euriarekin lan egin zuen, pala baten laguntzaz.

**Zeinek aginduta egin zenituzten katak edo lagin hartzeak?**

Nafarroako Gobernuko arkeologia sailak agindu zigun lana nola egin eta non induskatu ere.

**Hirimendin zer dagoen ikusteko aurre-ikerketarik egin da?**

Arantzadi zientzia elkarteko ikerlari den Juan Mari Martinez Txoperena aritu zen toki hura miatzen. Halako arkeologia-toki batean landa-lanaren lehen pausoa da tokira joan eta topografia ikusi, landaretza ikusi, ea belarra zein kolorekoa den, lur-sailak nolakoak diren eta abar. Ordenagailuan Nafarroako Gobernuak berak Interneten dituen garai desberdinetako aire-argazkiak ikustea. Badira nahikoa eskuragarri dauden beste teknologia batzuk ere aukera ematen dutenak landaretza kendu



Goian eta erdian Martinez azalpenak ematen. Behean Mattin Aiestaran indusketan.

eta topografia itzaletan eta abar ikustea. Beste hainbat kasuetan bezala, Martinezek gaztigatu zigun han aztarnaren bat egon zitekeela. Toponimia ere lagungarri zuen. Beti dira hasierako hipotesi horiek. Gertatu zaigu halako tokietara joatea eta sekulako sorpresak hartzea. Eta besteetan tokatu zaigu triste antza etxera bueltatu beharra.

**Kasu honetan zer, pozik edo triste?**

Guk hor zerbait itzela azaltzea nahi genuen. Baina emaitzak ez dira batere onak izan. Gaztigatu ziguten zenbait herritarrek, baita Martinez berak ere, Sakanako Autobia (A-10) egiteko hor hondeatzeko-makinak sartu zirela eta, ziurrenik, eremu hori nahikoa mugituta egon zitekeela. Hori da ikusi duguna.

**Kastroaren arrastoak begi bistakoak bai, baina lurpean ezer ez?**

Topografian irregulartasun moduko batzuk ikusten dira. Hori paisaia naturala gertatu daitezkeen irregulartasunak dira. Baina beti behar da, lehenik, halako irregulartasunak aurkitu eta gero zulatu. Zulatu gabe ez dago jakiterik inoiz lur azpian zer dagoen. Badira garatu diren zenbait teknologia. Badugu ikerlari bat horretan oso prestua dena: Ekhiñe Garcia. Geofisikaren aplikazioa arkeologia-aztarnategietan, horri buruzko tesia egin zuen. Horrek ahalbidetzen du lur azpian zein dentsitate edo eremu magnetiko desberdin dauden ikustea eta, horrela, lur azaletik bertatik mapa bat sor daiteke, ezer induskatu gabe. Baina hori beti begiratu behar da irregulartasun horiek naturalak diren edo naturaren aztarna diren.

**Zuen ondorioa da?**

Lehenik eta behin, ez dugu esaterik ezer badagoela. Atera diren emaitzekin kastrorik edo gotortutako herrixkarik izan zenik ezin dugu esan. Beste gauza bat da toponimia hor dagoela, Hirimendi. Eremua ere nahikoa estrategikoa dela, ibarraren erdialdean kokatuta, nahiko behealdean, baina betidanik bide natural oso garrantzitsua izan dena kontrolatuz. Baina egin ditugun lanetan behintzat, aztarnarik ez zaigu atera.

**Halakoetan Nafarroako Gobernuak babes neurriren bat edo izendapenen bat ematen die halako tokiei?**

Nik hor egin ditugun lanak zehazki azalduz txostena egin beharko dut lehenik, ekintzak

zein diren eta emaitzak zein diren azalduz. Gero Nafarroako Gobernuari dagokio horren inguruko erabakia hartzea eta eman beharko balu, babesa ematea. Horiek, jada, arkeologoteknikariaren irizpideak dira. Hor beste gauza bat sartzen da eta guk ez genuke inolako eskumenik.

**Kastroa gora, kastroa bera, baina, labur azaltzerik zer den?**

Gotortutako herrixka bat da. Hauek, nagusiki, Burdin Aroari lotzen zaizkion herrixkak dira. Burdin Aroa Euskal Herrian kokatzen da Kristo aurreko lehen milurtekoan, gutxi gorabehera. Tokiaren arabera gradualagoa da. Gunearen arabera aurkituzten dentsitate handiagoa du. Hori da, gutxi gorabehera kronologia. Kastroa da Burdin Aroko aire zabaleko bizilekuen tipologia ezagunena eta gehien izaten zena. Horrek ez du esan nahi ez zituztenik, gaur egun bezala, baserririk edo mendietako auzoak. Aralarren eta Urbanen, esaterako, ikusten da. Txabolak bazituzten. Goian lurretako artzaintza egiten zuten. Horrek mendietan populaketari beste itxura bat ematen dio. Baina, aldi berean, erdigune zentralak bazituzten. Horiek kastroak ziren. Normalki, harriz inguratutako herrixka txikiak izaten ziren.

**Zein bizi zen kastroetan?**

Halakoetan sartzea nahikoa konplikatu da. Batetik, idatziko iturri oso gutxi ditugulako. Eta ditugun apurrak erromatar egileenak dira. Eta egile horiek mende desberdinetan idatzi zuten eta ez dakigu jende beraz ari ote diren. Horri gehitu behar zaio beraiek lur eremuaz zuten jabetza. Ez dakigu zein puntutaraino kontrolatzen zuten noraino bizi zen herri konkretu bat, mugak finakoak ote ziren... Hor badira galdera gehiago erantzunak baino. Arkeologok iturri materialak erabiltzen ditugu. Idatzitako iturriari kasu egin behar zaie, jakina. Iragana ezagutzeko beste iturri bat dira. Baina guk materialei begiratzen diegu eta haiei begiratuta ikus-

**"GUK HOR ZERBAIT ITZELA AZALTZEA NAHI GENUEN. BAINA EMAITZAK EZ DIRA BATERE ONAK IZAN"**

ten dena da Euskal Herri osoan, eta inguruetan ere, mendi inguruko bizimodua oso antzekoa zela. Beraien burua nola sentitzen zuten, nola imajinatzen zuten, edo haien artean nola deitzen ziren. Hori beste kontu bat da. Arkeologiak hor sartze-ko arazo gehiago ditu. Ez da erraza. Oso aurkikuntza bereziak azaldu behar dute. Eta, noski, lehendabizi ikertu beharra dago. Ikertzea denbora eta suertea eskatzen duen lan bat da. Hori da panorama. Batzuek diote hor

Barduliarren edo Karistiarren muga hor hasiko litzatekeela. Beste batzuek diote Baskoien eremua dela. Beti da Burdin Aroko azken mende horietako erromatar idatzi horien inguru-ko interpretazioen eztabaida.

**Historiaren garai ilun hori noizbait argituko da.**

Bai. Gu sentsazio gazi-gozoarekin bueltatu ginen etxera. Gazia emaitzak direnak direlako. Lurraren irregulartasun horiek geologikoak diruditelako eta arkeologia-emaitzak lortu ez

ditugulako. Eta gozoa bakaikuarrek (lur-jabeek, udaleko kideek eta herritarrek) laguntzeko erakutsitako prestutasunagatik. Eskerrak asko. Eskertu ere Martinezi eta berarekin batera lanean aritzen direnei, urteetako miaketa lan gogorragatik. Beste batzuetan emaitza onak eman izan dituelako, eta emanen dituelako. Funtsean, lan honen balioa lehen aipatutako metodologia osoaren aplikazioan oinarrituta dagoelako. Nafarroako mendialdean Burdin Aroari

dagokionez egiteko asko dago. Nafarroako Gobernuak arkeologia saileko teknikariei ere eskerrak eman nahi dizkiet, aholkuengatik eta laguntzeko prestutasunagatik.

**"KASTROA GOTORTUTAKO HERRIXKA BAT DA. BURDIN AROKOA, K. A. LEHEN MILURTEKOA"**



Bakaikuko kastro baskoien indusketak.

## Sakanako Autobia eta arkeologia

Autobiaren lehen zatia, Etxarren eta Irañeta, 1993ko otsailaren 23an mustu zuten. Bigarren zatia, Irañeta eta Lakuntza artekoa, 1993ko garagarrilaren 24an. Duela 25 urte, beraz. Altsasu bitarteko beste bi zatietan lanean zeuden 1993an. Lan horietarako materiala atera zuten Hirimenditik, "denbora luzez", hitzaldian batek esan zuenez. "Bada, bai edo bai, arkeologia-arrastoak zeudela jabetu behar zuten" esan zuen Martinezek. Apirilaren 6an Hirimendira egindako bisitan herritarrek esan zuten, han 2-3 metro sakonera arte atera zuten lurra. Zulaketa obalatua izan zela eta perimetroa ez zutela ukitu esan zuen Martinezek.

Baina Hirimendikoa ez zen kasu bakarra izan. Unanuko San Buenabenturako ermita dermionan, Berriain magalean, autobia egiteko kaskailua ateratzeko harrobia egin zuten. Rafael Carasatorre Vidaurrek "Barranca-Burunda" liburuan (Ondatz sarreran) azaldu zuenez, "ulergaitza bada ere, suntsitu egin zen, horretarako beharrik ez bazegoen ere. Kaskailua ateratzen zen bitartean ederki asko egin zitekeen arkeologia-indusketa".

Carasatorrek azaldu zuenez, "Ondazkoa Erdi Aroko despopulatu koxkor baten eskema ikertzeko aukera onena zen. Etxeei zegozkien harri-pilaketak ukitu gabe zeuden; erraz asko berregin zitekeen neurriak eta batetik besterako eta eraikin osagarriekiko distantziak ikusteko. Oso aspaldiko kokalekua zen". San Buenabenturari eskainitako eliza, ermita, 1968 aldera erori zen. Irudiak Unanura pasatu ziren. Disko-formako estelak zeuden agerian eta denak desagertu ziren. Hilerrri handia zuen, ermitaren hego-ekialdera 70 metrora lurperatzeak zeuden, ermitaren pareta ondoan ere. Carasatorrek gaztigatu zuenez, batzuk 2,5 metroko sakonera ere eta oso ongi kontserbatuak. Martinezek Bakaikuko hitzaldian esan zuenez, "herri-lanekin ia beti izan dugun arazoa da hori. Haiendako arazo bat da. Baina arkeologia-jarraipen zehatzik ez badago, gertatzen da".



Hirimendi dermionan kokatzen da Bakaikuko indusketa.

## Sakanako kastroak

Ibarrean opatutako kastro aztarnak erakusten dutenez, haiek kokatzeko geografiak ematen duen aukerez baliatu ziren. Horrela, defentsa gaitasunean irabazi zuten. Haietako hainbaten berri Ezpileta elkarrekin eman du. Martinezek esan zuenez, "hemen agertzen diren kastro mota hauen bizi gehiena Burni Aroan izan zuten, baina Brontze Arotik ari ziren gotortzen".

Herria	Tokia
Errotz	Ermitagaña
Urritzola	Herrian bertan
Izurdiaga	Murubi Ilunbeta
Ekai	Gatxista Intrañeta
Irañeta	Arrateaurdi Ilarraga/Butre
Uharte Arakil	San Bartolome ermita Etxabe Munain
Arruazu	Atazar
Unanu	Eperreteagainta Gazteluzarpe
Bakaiku	Hirimendi
Olatzagutia	Mendi txiki eta Biokoitz (Birigako haitz)

## Etorkizuneko Bakaiku zehazten segituko dute

Parte hartze prozesuko 2. bilera irekia bihar, 17:30ean, udaletxean, haurtzaindegi zerbitzuarekin

BAKAIKU

Bakaikuko Udalak herria 10 urte barru nolakoa izanen den zehazteko parte-hartze prozesua martxan jarri du, Emun enpresak kudeatzen duena. Parte-hartze prozesua adineko bakaikuarren bilera batekin hasi zen. Gero herri guztiari zabalduetako parte-hartze prozesua abiatu zen. Aurreneko bilera irekian, azaroaren 10ean, 64 bakaikuarrek herriaren diagnostia egin zuten. Bigarren bileran herritarrei hamar urtera begira zer nolako Bakaiku nahi luketen zehazteko eskatuko zaie, aukerak eta beharrek zehazteko. Horien artean kontuan hartu beharko dituzte: azpiegiturak, euskara, kultura, parte-hartzea, ingurumena, kirola, ekonomia garapena eta abar. Larunbateko bilera horren ondoren beste bat egingen da eta hartan lehentasunak markatuko dituzte bakaikuarrek.

Bakaikuko Udaletik parte-hartze prozesuko bilera horiek "herri guztiari zabalik" daudela gogorarazi dute, eta gaineratu dute: "Bakaikuren oinarriak finkatu nahi ditugu, beraz, bilera ahalik eta zabal eta anitzek egitea nahi dugu. Herrian bizi garenon ikuspegiak beharrezkoak dira".





Oier Lakuntza aitortza jaso duen unean. EUSKO JAURLARITZA

## Lakuntzak Eusko Jaurlaritzaren ikerlari aitortza jaso du

Lakuntza CIC energi guneko Computational Studies taldean biltegitratze elektrokimikoa aztertzen ari da

### URDIAN

Oier Lakuntza Irigoienek Eusko Jaurlaritzak emandako ikerketa-lana eta zientzia eta teknologia meritu aitortza jaso zuen atzo, eta harekin beste 20 ikerlarik ere bai. Eusko Jaurlaritzak ikertzaileek bikaintasunean, espezializazioan eta merkatuarekiko hurbiltasunean egin duten lana aitortu nahi izan die horrela. Omenaldi-ekitaldian Iñigo Urkullu Renteria lehendakaria eta Arantxa Tapia sailburua izan ziren.

Lakuntza CIC energi guneko Computational Studies taldean

ari da gaur egun, biltegitratze elektrokimikoa aztertzen, hau da, baterien eta super-kondentsadoreen arloan ikertzen. CIC ikerketa zentroan energia ikertzen eta aztertzen da. Energia biltegitratze teknologien arloan protagonista izatea du helburu, Euskal Herriko industriaren lehiakortasunari laguntzeko. Guneak puntako ekipamendua du eta eskarmentu handiko talde kudeatzaile batek, aparteko zientifikoez, ekintzaileek eta industrian adituez osatutako zientifiko-batzorde batek lan egiten du.



ITURMENDIKO GAZTE ASANBLADA

## Hogeigarrenaren zain

Iturmendiko Gazte Asanbladak (IGA) sustatutako Eztanda Irratiak (107,7 FM) 19 urte bete dituela eta ospakizuna izan zen larunbatean herrian. IGAk antolatutako festak Eztanda zaleen komunitatea biltzeko balio izan zuen. Horrekin batera, irratirako dirua ateratzeko modua izan zen, urte hasierako suturen ondoren tresneria ez baitabil behar bezala.

## Lizarragako udazkeneko festak hemen dira

San Klemente ospakizuna izanen da asteburuan Lizarragan. Eta haiei astearteko jubilatuen eguna gehitu behar zaie. Lau egunetako ospakizunak, beraz, lizerratarak eta bisitariak elkar-tu eta giro onean pasatzeko. Jan-edanak ez dira faltako. Gaurko afarian 40 bat elkartuko dira. Biharkoan, berriz, ehunen bat. Eta, ondoren, dantzaldiaz gozatuko dute.

Aurreko urtean bezala, Arleze egunean Lizarragako balkoi politenaren lehiaketa egin zen eta baita saria banatu ere. Balkoi sarituaren argazkia festen kartel iragarlean agertzen da. Aurten Bakotxeniek izan du balkoirik politena.

## Egitaraua

### Azaroak 23, ostirala

- 12:30 Meza nagusia.
- 19:30 Tipoteue: Lizerrako ardi tripota eta Euskaraldiaren hasiera ekitaldia, frontoian.
- 22:00 Herri afaria. Ondoren, Tokan2LaPolla.

### Azaroak 24, larunbata

- 12:00 Kalejira, Amalur.
- 14:00 Auzatie.
- 15:00 Bazkaria, elkartean.
- 17:30 Haur eta helduendako herri kirolak. Txokolate-jana.
- 19:30 Dantzaldia, Iratzar.
- 22:00 Herri-afaria, frontoian.
- 00:00 Dantzaldia, Iratzar.

### Azaroak 25, igandea

- 12:00 Kalejira Amalur taldearekin.
- 13:00 Meza nagusia.
- 14:00 Auzatea eta dantzaldi txikia, auzoan.
- 16:30 Haurrendako tailerrak.
- 17:30 Mus eta briska txapelketa, Azi Iturri elkartean. Sariak, Errigorako saskiak.

### Azaroak 27, asteartea. Jubilatuben egune

- 13:00 13:00etan Meza.
- 14:30 Jubilatuen bazkaria.

## Munduko arrozek Lakuntzako plaza hartuko dute

Igandean, 12:30etik aurrera, sei kulturatako arrozak nola prestatu ikasi eta dastatzeko aukera dago

### LAKUNTZA

Mundu guztian jaten den zereal bat da arroza. Kultura bakoitzak bere modura prestatzen du arroza. Eta horixe bera erakutsi nahi du Txingurriye taldeak Munduko Arrozak ekimena antolatuz. Alde batetik, Lakuntzan kultura asko presente daude eta bes-tetik, kultura horiek duten pertsonak herrian bizi dira.

Kultura desberdinetako lakuntzarrek elkar ezagutzeko eta euren errezeten berri izateko prestatu da Munduko Arrozak. Plazatik pasatzen direnak Sene-

gal, Maroko, Kolonbia, Brasil, Euskal Herria eta Mallorkako arrozak nola prestatzen diren ikusi eta ikasteko aukera izanen dute. Izan ere, plazan bertan prestatuko dira hainbat kulturatako arrozak eta horrek sukaldari lakuntzarrei galderak egiteko aukera ematen du. Gainera, akaberan haiek dastatzeko aukera izanen dute plazatik pasatzen diren guztiek. Txingurriye taldeak antolatu du ekimena, Sakanako Mankomunitatearen Anitzartean Zerbitzua-ren laguntzaz.

## Eguberritan lana eta familia kontziliatzeko aisialdi programa

Eguberrietako oporretan lana eta familia bizitza bateragarria egiten laguntzeko Aisiaz Blai eskaintza egin du Altsasuko Udalak Txantxari ludotekaren bidez. Abenduaren 24an, 25ean, 27an, 28an eta 30ean eta ilbeltzaren 2an, 3an eta 4an izanen da, goizez. 3 eta 12 urte bitarteko haurrendako eskaintza da, hau da, 2006 eta 2015 urteen artean jaiotakoendako. Aurten go azken asterako eta heldu den urteko lehen asterako da ludotekaren eskaintza, 08:30etatik 13:30era. Ordutegi horretan plazak beteko ez balira 11:00etatik 13:30era litzateke.

Izen ematea gaur zabaldu da eta heldu den asteazkenara arte dago zabalik. 012 edo 948 012 012 telefono zenbakietara hots eginez edo [www.altsasu.net](http://www.altsasu.net) web orriaren bidez eman daiteke izena. Familiaren errentaren arabera ordaindu beharko da matrikula. Udalak lau errenta tarte zehaztu ditu eta horren arabera 15,8 eta 33 euro artean balio du goiz osoko ordutegia, eta eguerdiko ordutegiak, berriz, 7,9 eta 16,5 artean. Udalak matrikularako hobariak eta sartzeko baremoa ere zehaztu ditu. Argibideak Garbitoki eraikinean, 948 467 471 telefono zenbakian edo [ludoteka@altsasu.net](mailto:ludoteka@altsasu.net) e-postan.

## Etxarriko eta SGako parte-hartze esperientziak

Nafarroako Gobernuak eta Cerderna-Garalurrek antolatuta, erakundeek kudeaketa publikoan eta pribatuan herritarren parte hartzearen garrantziari buruz hausnartzeko jardunaldia egin zen Leitzan ostiralean. Nafarroako Mendialdean herritarren parte hartzean izan diren aurrerapausoak azaltzeko hainbat adibide eman zituzten. Eta, gainera, toki-erakundeetan eta ekonomia eta gizarte arloko beste erakundeetan parte-hartzea sustatzeko eta hobetzeko proposamenak aztertu zituzten.

Udal eta kontzejuetako parte hartze arloan bulkarturiko esperientzien artean Etxarri Aranzko Eneka Maiz Ulaiarrek egindakoa zegoen. Plaza berri-tzeko eta estalopea jartzeko egin zen prozeduraren berri eman zuen. Bestetik, Sakanako Garapen Agentziako Aintzane Iriberrri Berrostegietak Mendialdeko bestelako entitateek herritarren parte-hartzeari buruz sustatutako esperientzien barruan hartu zuen hitza. *Lankidetzara baino areago, lanerako kultura bat* izenburuko hizketaldian Lizarragan argindarra sortzeko mikrosarearen eta energiaren biltegitratze banatuen oinarritutako mikro-sareen merkatura iristeko e-Hiera proiektuaren berri eman zuen.





Jendea San Juan ermitatik herrirako bidean, Ermita kalean. ARTXIBOA

## Ermita kaleko lanak astelehenean hasiko dira

Han eta Isidoro Melero kalean zorua eta sareak berrituko dira. Abenduan autobus geltokia aldatuko da

### ALTSASU

Astehenean hasiko dira Ermita kaleetako sareak eta zoladura berritzeko lanak. Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi digunez, Isidoro Melero kalean lanak abendu akaberan edo ilbeltza hasieran hasiko dira. Bi kaleetan zoladura berritzearekin batera espaloien eta ibilgailuendako aparkatzeko espazioak egokituko dituzte. Lanak Construcciones Mariezcurrena SAK eginen ditu 633.833,62 euroren truke (BEZ kanpo). Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jasoko du Altsasuko Udalak, Toki Inbertsioen Planean jasoa baitago inbertsio hori. Lanek sei hilabete iraunen dute.

Alkateak jakinarazi digunez, abenduan autobus geltokia osasun etxe ondotik Aita Barandiaran adinduen egoitza ondora lekualdatuko da. Baina ez Isidoro Melero kaleko lanak

hasiak direlako, baizik eta Zelai kaleko pasabide goratuak berritzeko lanak hasiko direlako. Zelai kaleko lanak despedituta Isidoro Melerokoak hasiko direnez, azken horiek bukatu arte egonen da autobus geltokia Aita Barandiaran egoitzaren parean. Ollok aurreratu duenez, heldu den astean adinduen egoitzaren ondoan, Ideritzagain kalean, 3 metroko luzera duen markesina jarriko du udalak.

Gaur egun han Irun eta Madril arteko lotura egiten duten autobusak gelditzen dira soilik. Abendutik aurrera Iruña eta Gasteiz artean ibiltzen direnak ere. Altsasuko Udalak beste markesina bat suhiltzaileen egoitzaren parean jarriko du, Iruña eta Bilbo arteko lotura egiten duten autobusak gelditzen baitira han. Markesina hori 2,5 metro luze izanen da.

## Konponketak Utzubar eta Ondarria industrialdeetan

Etxarri Aranazko eta Altsasuko udalak industrialde banatan konponketak egiten ari dira

### ETXARRI ARANATZ / ALTSASU

Etxarri Aranazko Udala Utzubar industrialdeko urbanizazioko 1. faseko lana egiten ari da. Zorua berritu eta zuntz optikoa jartzen ari dira. Horretara, 189.773,23 euro bideratu dira. Erdia, 94.886,62 euro, enpresek ordainduko dute. Horretarako, kontribuzio bereziak ezarri ditu. Eta beste erdia Nafarroako Gobernuak pagatuko du, zati bat aurreten, 23.721,65, eta beste zatia heldu den urtean, 71.164,96 euro.

Altsasuko Udalak, bestalde, Ondarria industrialdean zorua berritu eta seinaleztapen bertikala jarri ditu. Horiek 74.877,32 euroko aurrekontua dute. Udalak 35.192,34 euro pagatuko ditu eta 39.684,98 euro gobernuak. Foru administrazioak ordainketa bi epetan egiten du: 30.503,18 aurreten eta 9.181,8 euro 2019an. Zorua berritzeko lanak 2017an eta 2018an egin dira. Udalak Ondarriako argiteria publikoko kanalizazioa eta kableak berritu eta egungo argiak LEDengatik ordezkatzeko ditu ere. Lanok ez dira aipatu laguntzan sartu, Tokiko Inbertsio Planean baizik. Baina hor soilik argiak. Hala ere, udalak industrialdeak hobetzeko diru-laguntzen deialdira aurkeztu nahi ditu beste lanak.



Sinatzaileek hurrengo urteetan eskaintza enpresetara zabaldu nahi dute.

## Eguberri saskiak Lanbide Heziketatik banatuko dira

LH institutuko Merkataritza Zerbitzuetakoak Garapen Agentziarekin eta Belardi elkartearekin lanean ariko dira

### SAKANA

Urteko azken asteetan eguberri saskiak oparitzea ohikoa da hainbat enpresatan. Aurten ere Sakanako ekoizle txikien produktuez eta nekazaritza ekologikoko bestelako produktuekin saskiak egin eta banatuko dira. Ibarreko ekoizleak sustatu eta ezagutarazteko proiektu horretan Sakanako Garapen Agentzia eta Belardi ekoizleen elkarte ari dira elkarlanean. Eta aurten egitaspora Sakana Lanbide Heziketa institutua elkartu da, zehazki, Oinarrizko Lanbide Heziketako Merkataritza zerbitzuko 20 ikasleak eta Izarne Quijano eta Ainhoa Manterola irakasleak.

Azken bi horiek, SGako elikadura arduradun Nerea Vianak eta Belardi elkarteko Aritz Ganboak elkarlan hitzarmena sinatu zuten atzo. Horren bidez, ikasleak saskien diseinuan,

prestakuntzan, ekoizleekin harremanetan eta eskaeren banaketan parte hartuko dute. Praktika hori teoriarekin ere uztartuko dute. Izan ere, 1. eta 2. mailako ikasleek eskaeren prestaketa ikasgaiarekin uztartuko dute egitekoa. 2. mailako ikasleek, gainera, biltegiatze operazio bereziak, bezeroari arreta eta merchandising ikasgaietan ere landuko dute proiektua.

Proiektuaren sustatzaileek adierazi dutenez, saio teoriko-praktiko horren bidez "ikasleen ikasketa eta garapen prozesua nekazaritza-ekologiaren eta gizarte ekonomiaren balioekin uztartuko da, ekoizleekin eta nekazaritza sektorearekin harremana sustatuz, baita haren garrantziari balioa emateko". Vianak azaldu digunez, "saski horiek ibarreko udalei eta Sakanako Mankomunitateari eskainiko zaizkie".

## Arruazuko Udalak bi baso aprobetxamendu saldu ditu

Arruazuko Udalak Basabea eta Arnaten dauden bi larizio pinuen baso aprobetxamendu saldu ditu. Haiengatik 25.446,02 euro eskatzen zituen eta 37.554,2 eurotan saldu dira, 12.108,18 euro gehiago. Beriain aldekoagatik Energias Renovables Amon SLk 21.813,04 euro pagatu ditu eta Aralar aldekoagatik Servicios Forestales de Dios SLk 15.741,2.

**SORGIÑAK**  
taberna

**LAKUNTZA**  
948 576 357

**Txalaparta**

**Taberna**

948 467 070  
Zumalakarregi plaza  
**ALTSASU**

**PORTUKO** ostindegia

Altsasu: 948 563 822  
Etxarri Aranatz: 948 460 988  
Urdiain: 948 563 763



Larunbatean Iruñean egindako kontzentrazioan 2.500 pertsona elkartu ziren. @ALTSASUGURASOAK

# Altsasuko auzia liburuan jasoa gelditu da

"Altsasu. El caso Alsasua" (Txalaparta) liburua gaur, 19:00etan, lortia kultur gunean aurkeztuko dute. Liburua argitaratzeko prozesua eta edukia azaltzeaz aparte mikrofono irekia ere izanen da, jendeak bere iritzia emateko

## ALTSASU

Aritz Intxusta eta Aitor Agirrezabal Gara egunkariko kazetariak idatzi dute liburua, eta Jon Jimenez editorearekin batera izanen dira aurkezpenean. "Jendeak gertatu diren gauza asko ulertzeko" argitalpena dela esan du Hiriberriko Agirrezabalek Belexe Irratian (FM 107,3 edo [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)). "Bi urtetan albiste ugari egon dira. Batzuk ahaztuta ditugu, beste batzuk agian ez zaizkigu ezta iritsi ere. Zein lotura dauden justizia, politikari eta Guardia Civilaren artean. Zergatik iritsi diren zortzi gazte euren burua honen guztiaren barruan ikustera".

Agirrezabalek esan duenez, "uste dugu liburu hau ere Altsasuko auzia sozializatzen laguntzeko beste tresna bat dela". Agirrezabalek argitu duenez, liburuarekin "gure asmoa ez da esatea zein den ona eta zein den txarra, edo zeinek daukan arrazoia edo zeinek ez. Baizik eta bilatu izan duguna da azaltzea

nola den posible gau batean, taberna batean, nola den posible mozkor liskar batetik liburu bat idaztea. Zenbat gauza gertatzen diren hor tartean, oso minutu gutxiko liskar batetik liburu bat idazteko".

Hiriberriarrak azaldu duenez, "kazetaritza liburua da. Kapitulu bakoitza erreportaje modukoa da. Hau hain istorio handia izateko elementu horiek guztiak barnebiltzen saiatu gara". Hiru "faktore nagusiren" inguruan landu dute gaia: justizia, politika eta hedabideak. Agirrezabalek gaineratu duenez, "hiru hitzek abizen bera dute: espainiar justiziak, espainiar politikak eta espainiar hedabideek gai honetan izan duten pisua. Era

**"ALTSASU/ALSASUA DAGO IZENBURUAN. HERRIA BERA ETA KANPOAN SORTU DUTEN CASO ALSASUA"**

berean, Euskal Herriak bizi duen momentu historikoa. Altsasukoa oso momentu zehatzean gertatzen da, zeinetan kontakizunaren gudan sartuta gauden guztiz. Altsasuko auzirik gabe ezin da ulertu gaur egungo espainiar estatuaren egoera". Horregatik, gaztelaniaz argitaratu dute. Kontakizunaren "guda horretan bi aktore nagusi sartzen ditugu: Guardia Civila eta Covite".

Agirrezabalek berretsi du ez dela iritzia emateko liburua eta, horregatik, "saiatu gara istorio honen protagonista guztiak hitz egiten". Altsasuko Gurasoak, Altsasuko Aske herri asanblada, tabernako zerbitzariak, auzipetuak eta Covitek euren iritzia ematen dute liburuan. Agirrezabalek azaldu duenez, "Covitek erantzun batzuk eman dizkigu, baina bi Guardia Civilek eta haien bikotekide diren emakumezkoek ez dute parte hartu nahi izan. Nire ustez hori ere nahikoa esanguratsua da". +[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## Guardia civilen igande goizeko jarrera salatu dute

Ospak asteburuko gertakariak salatu ditu eta EH Bilduk Espainiako Gobernuari galdetu dio

### ALTSASU

Igande goizaldean Altsasuko bi tabernatan kalez jantzitako bi guardia civil sartu eta han zeuden gazteak "probokatu" zituztela jakinarazi zuen Hitzondok. Jarrera salatuzeko oharra argitaratu du Ospa mugimenduak. Bere kideek adierazi dutenez, "errepresioa ez zen hasi 2016ko lastaileko gau horretan izandako muntaiarekin eta ez da bukatuko kasu horrekin. Errepresio indarrek inpunitate osoarekin jarduten dute Euskal Herri langilearen kontra". Ospa mugimendutik azaldu dutenez, "errepresioaren aurrean kolektiboki hausnartzeko, antolatze eta lan egiteko beharra agerian uzten du, errepresioaren jatorria zehaztuz eta suntsituz". Errepresio indarrek alde egin beharra berretsi dute Ospatik eta haiei aurre egiteko "kolektiboaren indarra" aldarrikatu dute.

Bestalde, EH Bilduko diputatu Marian Beitialarrangoitiak Espainiako Gobernuari galderak egin dizkio: "Altsasuko salaketaren berri badu gobernuak? Guardia Civila Altsasun liskar arrazoi ez izateko neurriak hartuko du Gobernuak? Altsasu herria erabiltzeari uzteko zer egingen du Gobernuak?"

## EH Bilduren parlamenturako zerrendan sakandarra

EH Bilduko kideek Nafarroako Parlamenturako hautagaitza proposamena asteburuan berretsi beharko dute. Zerrendaburua Bakartxo Ruiz izanen da. Gaur egun parlamentaria den Esther Korres altsasuarra, 12. postuan dago. Zerrenda agertzen ez dena egun parlamentaria den Asun Fernandez de Garaialde Lazkano Sala altsasuarra da.

## Gobernuak 1936ko hobien mapa berri du eta garatu du

Memoriarako Nafarroako Institutuak Nafarroako Hobien Mapa eguneratu eta berri du. Haren bidez historia-memoriari buruzko informazioa herritarren esku jarri nahi du Nafarroako Gobernuak. Aipatu mapa web orri batean dago eta han 1936ko estatu kolpearen ondoren kolpistek jendea erail zuten tokiak, haietan eraildakoen berri eta hobien ikerketa zertan den azaltzen da.

Aipatu mapan Sakanako sei hobi daude (Osikiako txipudia, Murgindueta, Lizarrusti, Etxarriko hilerria, Etxarriko Arizalko hariztia eta Altsasuko Sozarretako N-1 errepide zaharra) eta Urbanan sei (Ordutz, Otsaportillo, Basauntziturri eta Saroiko lezeak, Ubaba eta Irakasleen pagoa). 12 hobi horietan gutxienez 41 pertsona fusilatu zituztela jakina da. Esaterako, Otsaportilloko lezetik ateratako gorpuzki batzuk ezin identifikatu daude, egoera txarrean daudelako.

Mapan jasoak ez dauden hobien berri edo bakarren batek kokapen zehatzaren berri duten herritarrei informazioa emateko eskatu dute Nafarroako Gobernutik. Horretarako, 848 426 522 telefonora hots egin edo [pazyconvivencia@navarra.es](mailto:pazyconvivencia@navarra.es) e-postara idatzi daiteke.

## Emakumezko gazte baten heriotza Beriaingo malkorrean

Etxarri Aranazko 25 urteko emakumezkoa Beriain mendian hil zen larunbat eguerdian. Mendi puntan zegoela 200 bat metro amildu zen. Harekin zihoan emakumezkoak larrialdi zerbitzuak gaztigatu zituen, 11:23an. Ezbeharraren tokira Altsasuko suhiltzaileak eta Nafarroako Gobernuaren bi helikoptero mugitu ziren. Azken horietako batean medikuak zihoazen eta bestean Guardia Civilaren mendi erreskateko taldeko kideak. Baina iritsi zirenerako emakumezkoaren heriotza ziurtatu besterik ezin izan zuten egin. Gaztea despeditzeko jendetza elkartu zen Etxarri Aranatzan astelehenean.

## Etxegabeen aterpeko lanak astelehenean hasiko dira

Argiterian egindako inbertsioekin potentzia % 75 murriztu eta faktura 100.000 txikituko du

### ALTSASU

Kamineroena zen etxebizitza bat etxegabeen aterpe berria izanen da 2019tik aurrera. Etxebizitza egokitzeko lanak Erki Construcciones Sostenibles enpresak egingen ditu 108.661 euroren truke (BEZ kanpo). Lanak urte akaberarako despedituta egon beharko dira. Bestalde, pasa den astean despeditu zituen Excavaciones y Transportes Orsa enpresak Altsasuko kale batzuetako zorua eta seinalez-tapena berritzeko lanak. 61.468 euro (BEZ kanpo) jaso ditu horien truke.


Bestalde, argindar kontsumoa murriztu eta faktura txikitzeko inbertsioak egiten segitzen du Altsasuko Udalak. Iortia kultur guneko eta Zelandi kiroldegiko argiteria aldatzeko lanak Ramos enpresari eman dizkio. Altsasuko enpresak lan horiengatik 33.122 eta 53.876 euro jasoko ditu (BEZ kanpo). Ildo berean, hainbat auzotan eta Ondarria industrialdean argiteria publikoaren kanalizazioa berritzeko, LED argiak jartzeko eta Ibarreako, Ameztiako, Zubeztiako eta Ondarriako aginteak berritzeko lanen deialdia egin du udalak. Lanek 325.580,94 euroko aurrekontua eta % 70eko diru-laguntza dute.

## Energia eraginkortasuna kiroldegira iritsi da

Energia kontsumoa murriztearekin batera argindar faktura txikitzeko eta ingurumena errespetatzeko ahaleginarekin segitzen du Irurtzongo Udalak. Hiru helburu horiek energia eraginkortasuneko udal planaren bidez egin du. Eta hari segituz, Irurtzongo Udalak kiroldegiko argiteria aldatu eta berri zuen pasa den hilabete akaberan. Horren ondorioz urteko 19.600 kw eta 2.138 euro aurreztuko ditu. Irurtzongo Udalaren plan horren barruan, besteak beste, kultur etxeko argiteria eta udaletxeko eta jubilatuek elkarteak leihoak aldatzeko aurrekontuak zehaztuak zeuden aurtengo udal kontuetan.

## Altsasuko Udalaren osoko bilkurak zuzenean ikusgai

Altsasuko udaletxeko bilkura gelara joan behar izan gabe, www.altsasu.eus web orriko Osoko bilkurak zuzenean atalean klikatuta, munduko edozein lekutatik ikus daitezke udalaren bilkurak. Horretarako, gelako ezkerreko paretan kamera bat jarri da, bilkura gela guztia hartzen duena. Horretaz aparte, zinegotzi bakoitzari mikrofono bat jarri diote eta hitz egin behar dutenean hura pizteko botoia piztu behar dute. Kamera hizlariarengana bideratzeaz Isaac Valencia Alzueta idazkaria arduratzen da. Horrela izan zen aurreneko plenoa irailaren 27koa. Dagoeneko web orrian hiru dira ikusgai daudenak.



Mikel Garziandiak, David Orozek, Patxi Xabier Razkinek eta Natalia Azkonak akordioa sinatu zuten. UTZITAKOIA

# Aralarren erabilera publiko jasangarria

Horixe lortu nahi dute Aralar Elkarteak, Sakanako Garapen Agentziak, Aralarko santutegiak eta Plazaola turismo partzuergoak. Helburu komuna zituztela jabetuta 2016an elkarlanean hasi ziren, orain lankidetzaz hitzarmen bidez ofizialdu dute

### SAKANA

Plazaolako turismo partzuergoko Natalia Azkonak, Aralarko santutegiko kapilau-ministro Mikel Garziandiak, Sakanako Garapen Agentziako buru David Orozek eta Aralar Elkarteak lehendakari Patxi Xabier Razkinek hitzarmena sinatu zuten Lakuntzan atzo. Haren bidez Aralar mendian "eginen den edozein jardura modu ordenatua eta seguruan egin behar" dela adostu dute; beti ere, "bertako balioak babestuz, kontserbazioa eta estimazioa bermatuz".

Lau erakundeek helburu komunak dituztenez, atzo sinatutako akordioaren bidez 2016an hasitako lankidetzaz ofizialdu

dute. Hitzarmenean jasotzen denez, helburu nagusia "sinatu duten erakundeen arteko lankidetzaz iraunkorrerako marko bat egitea da, hortik erabilera publiko sustatzen dituzten jarduerak eta politikak bultzatzeko asmoarekin".

Aralarko kontserbazio bereziko natura, kultura eta historia balioak sustatu eta babestu nahi dute akordio horrekin lau sinatzaileek. Hori kontuan izanik, gizarte eta ingurumen arloan jasangarria den turismoa, sentzibilizazioa eta ingurumen heziketa sustatuko dute. Lau erakundeetako ordezkariak argi dute hitzarmenaren bidez sustatuko direnak Aralarko Kudea-

keta Planean eta onartuko den Erabilera Publikoko Planean zehaztutako helburuekin bat egin beharko dutela. Hitzarmenak jarraipen bokazioa duenez, sinatzaileek aldizka jarraipena egingen diote, erakunde bakoitzeko bi kidez osatutako jarraipen batzordearen bidez.

Aipatu elkarlana natura, turismo eta kirol arloetan 2016an egindako sustapen eta hedapen ekintzeekin hasi zen. Izan ere, Europako Natura 2000 sareko zati den Aralar mendiko 14.000 hektareak baino gehiagok milaka bisitari erakartzen ditu urtero. Natur balioek, aldi berean, tokiko garapena sustatzeko aukera ematen dute.



**Euskaltel iritsi da Nafarroara Landanet-en eskutik. Lan egin nahi duzu gurekin?**

- bidali curriculum: [rrhh@logikaline.com](mailto:rrhh@logikaline.com)
- edo
- deitu: 943 31 86 06





Guaixelko familia guztiani  
besarkada bat

Joseba  
Alexandris  
2018



# Zorionak Joseba! guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO  
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

## OSTIRALA 23

**ALTSASU Txantxari ludotekaren 25. urteurrena. Jostailu trukaketa eta tarta dastamena. 17:00etatik 19:00etara, ludotekan.**

**ALTSASU Gazte agenda. Gau-emanaldia. 18:00etan, Intxostiapuntan.**

**ALTSASU Liburutegiak, aterpe naturalak. Anfibiaok haurrendako tailerra Beltzekin. 18:00etan, liburutegian.**

**IHABAR Euskararen eguna. Oier Apaolaza antropologo eta kazetariaren azalpena eta solasaldia. Ondoren, afaria eta Watson kantautorea. 19:00etan, herriko etxean.**

**ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7.ean.**

**ALTSASU El caso alsasua liburuaren aurkezpena. Aritz Intxusta eta Aitor Agirrezabal kazetariak eta Jon Jimenez editoreak parte hartuko dute. 19:00etan, lortia kultur gunean.**

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, plazan.**

**ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.**

**ALTSASU Gozamenez programa. Con amor, Simon filmaren emanaldia. Ondoren, Bel Pozueta sexologarekin foruma. 21:45ean, lortia kultur gunean.**

**ALTSASU Sociedad literaria**

**y el pastel de piel de patata filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.**

**OLAZTI Politicamente incorrecta La Chula Potraren emanaldia. 22:30ean, kultur etxean.**

## LARUNBATA 24

**IRURTZUN Udazkeneko Dantza jaialdia: Asoc. Sietemancas eta Orritz dantza taldeak. Orritz dantza taldeak antolatuta. 18:00etan, frontoian.**

**ALTSASU Lanerako gaitasun pertsonalak. Gazteria zerbitzuak antolatuta. 10:00etatik 14:00etara, Intxostiapuntan.**

**BAKAIKU 10 urtera begira zer nolako herria? biltzarra. 17:30ean, udaletxean.**

**ALTSASU Gazte agenda. Proiektzioa eta krispetak. 18:00etan, Intxostiapuntan.**

**LAKUNTZA Gusi eta Jorge Sanchez-en kontzertu akustikoa. 19:00etan, kultur etxean.**

**ALTSASU Altsasuko ferietako Argazki Rallyaren argazkien proiektzioa eta sari banaketa. 19:30ean, lortia gela txikian.**

**ALTSASU Titzina teatre konpainiaren La zanja antzezlan. 19:30ean, lortia kultur gunean.**

## IGANDEA 25

**ALTSASU Ibilbidea zehazteke. Barranka Txirindulari Taldeko mendi atalekoak ibiltzera aterako dira. 07:30ean, taldearen egoitzatik.**



**OLAZTI Liburutegiak, aterpe naturalak. Zenbait artisten Urbasari buruzko pintura erakusketa. Azaroaren 30era arte. Astelehenetik ostiralera 16:30etik 20:30era, liburutegian.**



**ALTSASU Juanjo Lopez Azurmendiren 'Bidaian' argazki erakusketa. Azaroaren 25era arte. Astelehenetik larunbatetara 18:30etik 21:00etara eta igandetan 16:00etatik 20:30era, lortian.**



**ALTSASU Altsasuko ferietako argazki rallyaren lanen erakusketa. Altsasuko Mendigoizaleak antolatuta. Azaroaren 25era arte. Gure Etxean.**

**IRURTZUN Arakilgo itzulia. Antolatzaileak: Iratxo elkarte eta Arakilgo udala. 08:30etik, plazatik.**

**URDIAIN Agoizko San Miguel Abesbatzaren kontzertua. 11:30ean, elizan.**

**LAKUNTZA Munduko arrozak ekimena. Txingurriyak taldeak antolatuta. 12:30ean, plazan.**

**ALTSASU Alarma feminista matxismoaren kontra! elkarretaratzea. Altsasuko mugimendu feministak antolatuta. 13:00etan, udaletxearen parean.**

**IRURTZUN Familiarteko zinema euskaraz. 17:00etan, kultur etxean.**

**LAKUNTZA Bingo-a gazteendako. 17:00etan, kultur etxean.**

**OLAZTI Transoceanica dantza, argazkilaritza eta musika ikuskizuna. Dinamo dantza konpainiak antolatuta. 17:00etan, kultur etxean.**

**ALTSASU Gazte agenda. Escape room: bost andre, bost maleta. 18:00etan, Intxostiapuntan.**

**ALTSASU Sociedad literaria y el pastel de piel de patata filma. 19:30etan, lortia kultur gunean.**

**ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.**

## ASTELEHENA 26

**ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea. 19:00ean, udaletxearen parean.**

## ASTEARTEA 27

**LAKUNTZA Hedatze eta sentsibilizazio energetikoari buruzko II. jardunaldiak. Sakanan energia kudeatzeko tresna adimentsua hitzaldia. Nafarroako Gobernua. 11:00etatik 13:00etara, kultur etxean.**

**ETXARRI ARANATZ Liburutegiak, aterpe naturalak. Saguzarrak haurrendako tailerra Beltx-ekin. 17:00etan, liburutegian.**

## ASTEAZKENA 28

**LAKUNTZA Sakanako Sozioekonomiko Behatokiaren bilera plan estrategikoaren**

**balorazioa egiteko bilera. 17:00etatik 19:00etara, Sakanako Mankomunitatearen egoitzan.**

**ARBIZU Udazkeneko km-0 sukaldaritza tailerrak. Dastatu Sakana itxiera. 19:00etan, Argi-Bidea elkartearen.**

## OSTEGUNA 29

**ARBIZU Liburutegiak, aterpe naturalak. Bertako basoak haurrendako tailerra Beltx-en eskutik. 17:00etan, liburutegian.**

**ALTSASU Txantxari ludotekaren 25. urteurrena. Ludotekako 8 eta 12 urte bitarteko taldeendako escape room-a. 18:30ean, ludotekan.**

**ETXARRI ARANATZ Liburutegiak, aterpe naturalak. Birziklatze tailerra. 19:00etan, liburutegian.**

**ALTSASU En la sombra filmaren emanaldia. 19:30ean, lortia kultur gunean.**

## ZORION AGURRAK



**Zorionak ama eta tiol!**  
Azaroaren 22yen zuben egune da. 74 urte!!!  
Itzekuen partes, muxu handi bet!



ESKELA



## Ane Begiristain Igoa

"Iraganeko ume txikia,  
itzaliko ez den inozentzia.  
Behin esan zenidan, arrazoi zenuen,  
aro bakoitza ahaztezina dela"

Zu kuadrilla

ESKELA



## Ane Begiristain Igoa

—Goian bego—

Berain mendian hil zen 2018eko azaroaren 17an

Egin senak agintzen dizun hori, beti!

Xabi eta Idoia, Ion, Edu, Mikel, Maria eta Iker, Artzai, Iñigo eta Ariane, Jabi eta Jaione, Antton eta Nerea, Mikel

**ARTSAIAN ETXEKO ZU LENGUSUBEK**

## IRAGARKI SAILKATUAK

### IKASTAROAK

#### MUSIKA

**Instrumentu bat jotzen ikasi nahi duzu?** Egin proba baxuarekin! Ez da beharrezkoa musika ikasketak izatea, gogoia bakarrik. Adin guztiendako. Luisillo 617 723 297

### ALTZARIAK

#### SALGAI

**Sofa-oheta SALGAI.** Gubxi erabilia, oso egoera onean dago. ([www.guaixe.eus/iragarkiak](http://www.guaixe.eus/iragarkiak) web-orrian argazkia ikusgai). 150 euro. Deitu 696126174

### IBILGAILUA

#### SALGAI

**Seat Ibiza Sport Rider autoa salgai.** Beltza, 100

cv, 2007koa. Egoera onean. Kontzesionarioan egindako errebisioak ziurtatutakoak. 152000Km 4500 euro. Interesatuak deitu 690 115 640 tfora

### OHARRAK

**Etxarriko irakurle taldea.** Abenduaren 13an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegiaren elkartu eta Anjel Lerbundiren "Hamaseigarrenean aidanez" liburuz hizketatuko dira.

**GoiEner.** Iruñeko helbide berria: Kale Berria 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hileroko 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

**Autoenplegurako laguntza.** Zure lanpostua sortu nahi baduzu Ceder-

na-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueraren sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, [sakana@cederna.es](mailto:sakana@cederna.es) edo [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es)

### OPATUTAKOAK/ GALDUTAKOAK

#### OPATUTAKOAK

**ERLOJUA ALTSASUN.** Esferaren atzeko aldean MR hizkiak eta 22-6-53 eta 22-6-78 datak ditu idatziak. Longines markakoa. Galdutuenak Guaxe astekarira hots egin dezala, 948 564 275

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

ESKELA



## Ane Begiristain Igoa

Zurekin igarotako momentuek gure bizipoza osatzen dutelako, beti bihotzean!  
Maite zaitugu

Instititutuko klasekideak

ESKELA



## Ane Begiristain Igoa

Zenbat negar eta zenbat min  
ta zenbat gau lo ein barik  
zenbat muxu eman gabe  
ta zenbat hitz esan gabe  
zenbat malko...  
MAITE ZAITUGULAKO !!!

Etxarriko zu launek



## JAIOTZAK

- **Imane Elmoutaouakil**, azaroaren 7an Altsasun
- **Xuhar Larrion Gartzandia**, azaroaren 15ean Altsasun
- **Asier Peña Santesteban**, azaroaren 15ean Lakuntzan
- **Osane Guerra Abaigar**, azaroaren 16an Irurtzunen

## EZKONTZAK

- **Maria Leticia Alvarez Musetti eta Raul Camuel Fernandez**, azaroaren 17an Olaztin
- **Ana Lorea Les Farre eta Francisco Javier Garcia Rodriguez**, azaroaren 17an Irurtzunen

## HERIOTZAK

- **Ane Begiristain Igoa** etxarriarra, azaroaren 17an Unanun
- **Milagros Andueza Lanz**, azaroaren 17an Lakuntzan
- **Gabino Lizarraga Lopez de Goikoetxea**, azaroaren 21ean Urdiainen



**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI-ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

# IRACHE

tanatorioak

Opari bat dugu zuretzat. Ate irekien eguna.  
Altsasuko gure eraikin berrituan (Erburua k, z/g, behea)  
Igandean, azaroaren 25ean, 10:00etatik 14:00etara.

ESKELA



## Ane Begiristain Igoa

Ahazten ez dugun kantu zure  
ezpainetan, gure melodia  
irrietan.

Pozik armiarma

**Aldabide neska taldeko lagunak**

ESKELA

## Ane Begiristain Igoa

Euskal Herriko zeru geñen  
izer berribet piztua  
Goian Bego Ane!



**Etxarriko Gazte Asanblada**

ESKELA



## Ane Begiristain Igoa



"Batera iraun dugu, ekaitz bortitzenetan, berunezko garai latzetan.  
Gure ilusioekin, gure akats guztiekin, azken arnasea arte libre.  
Zure irriaren argia ez da inoiz itzaliko gure bihotzetan. Beti gurekin"

Eskerrik asko. Goian bego, Ane.

**Zure ingeniariak: Ainhoa, Leire, Oihane, Ibai, Xabi eta Adrian**

ESKELA



## Ane Begiristain Igoa

Plazerra izan da zu ezagutzea, Ane.  
Beti arte maittia!  
**Beñat, Igon, Joxerra eta Izaskun**

ESKELA



## Ane Begiristain Igoa

"Hildakoaren arimak bizirik darrai gelditzen garenon artean"  
Beti maiteko zaitugu  
**Irurtzungo lagunak**

ESKELA



## Ane Begiristain Igoa

"Ahazten ez dena  
ez delako sekula hilko"

**93.ko kintuek**

ESKELA




## Ane Begiristain Igoa


"Udazkeneko azken ostoa bezala  
joan zara gure ondotik,  
zure bizi grinak iraunen du betirako  
gure artean bizirik"

**Hydro-ko lankideak**

OROIGARRIA



## Odei Iturrioz Fernandez Rexu Iturrioz Gastesi



Bilatzen zaituztegu eta ez zaudete, ta ezin diogu ezinegon honi eutsi,  
argia ilun, bizia samin, eguzki izpiak hain dira urri!

Maite zaituztegu

**Teilaia baserria**  
Urdiain





Joseba Ezkurdiak makina bat kamiseta, pilota eta oroigarri sinatu behar izan ditu egunotan.

# "Ametsa egi bihurtu da"

**PILOTA** Lau t'erdiko txapela merezimendu osoz lortu zuen Joseba Ezkurdiak, final ikusgarrian Jokin Altunari 17 eta 22 irabazi eta gero. Ospakizunen ondoren harrera egin zien komunikabideei eta oso maitatua sentitzen dela aitortu zuen arbizuarrak

**Erkuden Ruiz / Mainer Betelu** ARBIZU  
**Nola sentitzen zara txapela irabazi ondoren?**

Oso pozik, ametsa egia bihurtu da. Urte batean bi txapel irabaztea eta hirugarrenengo postu bat lortzea ez da tontakeria, eta egindako lanarekin harro eta pozik nago. Hunkituta, are gehiago hemen, Nafarroan izan zelako eta bakarkakoa delako.

**Ospakizuna nolakoa izan zen?**

Oso polita, gertuko jendearekin. Afaria egin genuen frontoian, jende mordoa juntatu ginen eta gero herriko tabernetan ibili ginen, ordu txikiak arte. Oso pozik nago, herrian maitatua sentitzen naiz eta horrek asko balio du. Txapel honek merezi zuen ospakizun polit bat, eta hala egin genuen.

**Nafarroa Arenan hemengo jende asko zegoen. Nabaritu al zenuen? Indarra eman zizun?**

Herriko jende asko, gertuko jende asko, frontoia izugarria... oso polita izan zen. Biak, bai Jokinen aldeko afizioa eta nirea oso ongi portatu ziren; oso giro sanoa egon zen, errespetuzkoa, giro ona, eta gozada bat da horrela jokatzea. Bi afizioei esker eman nahi dizkiet. Oso maitatua sentitzen naiz, bai orain eta bai lehen; hori oso gauza handia da.

**Zer aldatu da? Zergatik irabazi duzu txapel hau?**

Lan asko dago txapela honen atzean. Aurreko txapelak, Binakakoak, konfiantza ematen dizu

**"SENTSAZIO OSO ONAK NITUEN ETA KONFIANTZAREKIN, BURUA HOTZ ETA LASAI JOKATU NUEN"**

ere, eta nik uste dut urte honetan erregularra izan naizela, gauzak ongi egin ditudala, bai buruz eta fisikoki lan asko egin dudala eta hau da bidea: lana, lana eta lana. Entrenatzen jarraituko dut, izan ere orain emaitza onak daude, baina etorriko dira momentu zailak ere, landu beharrekoak. Momentuz txapel honekin disfrutatu eta ea hortxe gauden.

**Nolakoa izan zen partida?**

Gogorra. Jokinek ikaragarri jokatu zuen, buelta eman zion partidari eta banekien sufritzea tokatu behar zitzaidala, burua hotz izan behar nuela. Baina sentsazio oso onak nituen, hankaz ongi, fisikoki oso ongi sentitzen nintzen, ongi errekupe-ratzen nintzen eta horrek konfiantza eman zidan. Jokinen takadaren ondoren, orduan ere lasai eta konfiantzarekin senti-

tu nintzen, gauzak ongi egin behar nituela jakitun. Harro nago sufritzen jakin izan nuelako eta partidaren barruan mantendu nintzelako. Ez zitzaizkidan mamuak bisitan azaldu eta ongi ikusi nuen neure burua, lasai.

**Noizbait irudikatu zenuen urte batean bi txapel irabaztea?**

Ez, ez nuen pentsatzen. Azkenean kirolean, lanean eta eguneroko bizitzan, egunero presentea dugu buruan, oraina, eta ez duzu pentsatzen ezer; baina polita izan da, erronka zaila da urte batean bi txapel irabaztea. Gauza ongi atera da eta ea horrela segitzen dugun. Kolpeak hartuak geunden, partida garrantzitsuak galduta, baina beti lanean segitu dut eta gauzak ongi atera dira.

**Nori eskaini diozu txapela?**

Egunero nirekin daudenei eskaintzen diet eta nirekin batera poztu diren pilotazale guztiei; eta bereziki nire aitari, txapela ezin izan baitu berak nahi bezala ospatu. Amak kokatuko du txapela etxean, bestearen ondoan. Gehiagorendako tokia ere badago (kar, kar).

**Orain Binakakoa...**

Bai, hemen ez dago atsedetik. Lan egiteko gogoz nago, ilusioarekin. Ea Ladis Galarza eta ni lehiakorrek garen eta zein lan egiten dugun.

**Maila handia emango duzula espero du katedrak...**

Exijentzia handiagoa, seinale ona. Pozik nago txapelak ekarri didan guztiarengatik, asko eman dit bai buruz bai denez, banaka irabaztea gogorragoa baita. Binakakoan saiatuko gara lana ahalik eta hobekien egiten eta lehiakorrek izaten. Ahalik eta urrutien iritsi nahi dugu, baina partida bakoitza ahalik eta hobekien jokatu, hori da gakoa.

**Hirugarren txapela irabazten baduzu?**

(kar kar) Latza izango litzateke. Finaletara iristea oso zaila da eta txapelak oso garesti daude. Borrokan gauden bitartean seinale ona da, ongi gaudenaren seinale, eta ea urte asko gauden lehia horretan.

**"OSO MAITATUA SENTITZEN NAIZ, BAI ORAIN ETA BAI LEHEN, ETA HORI OSO GAUZA HANDIA DA"**

## Bere zale guztiei eskaini zien txapela

Giro paregabea zegoen lehendabiziko finala hartu zuen Nafarroa Arenan Kantxara ateratzekoan "oilopurdia" jarri zitzaioela onartu zuen Ezkurdiak. Altunaren zale fidelek ez zuten huts egin, baina Nafarroa Arenan gehiengo ziren Ezkurdiaren aldekoak; hots gehiago egiten zuten, behintzat.

Altunaren alde erori ziren lehen tantoak, baina Amezketakoa ez zen eroso ageri. Nafarroa Arenako ezker paretak estraño batzuk egiten zituen, bereziki Altuna jokoz kanpo hartu zutenak. Ezkurdi hobeki egokitu zen frontoira eta partidaren kontrola hartzen hasi zen. Berak dominatu zuen piloteoa. Eroso eta gustura jokatzen hasi zen arbizuarra; aldiz, Altuna deseroso ibili zen.

Arbizuarrak jokoari abiadura eman zion eta tantoak bere zakura erortzen hasi ziren. Bi paretak izan ziren bere armarik indartsuena; ezkerreko pareta bilatu zuen Ezkurdiak eta min handia egin zion Altunari; 8 eta 14 aurreratu zen Ezkurdi, baina partidaren kontzentratuta jarraitu zuen Jokin Altunak. Horrela, 7 tantoren takada lortu zuen jarraian eta 15 eta 14 aurreratzera pasa zen gipuzkoarra. Ezkurdiak nola eutsiko zion, hori zen askoren kezka, baina kontzentratuta egoten jakin zuen arbizuarrak eta bere estrategiarekin jarraitu zuen: sakea, abiadura, ezker paretara gerturatu eta bi paretak. Horrela, aldea ateratzen hasi zen eta 17 eta 22, garaipen sendoa lortu zuen, merezitakoa, Nafarroa Arena betetzen zutenen txaloen artean. Hunkituta, txapela bere zale guztiei eskaini zien, bereziki aitari.

## XXI. Iñigo Aritza Pilota Txapelketa abian

50 neska-mutikok hartuko dute parte eta final handiak ilbeltzaren 27an jokatu dira

Iñigo Aritza ikastolak aurrera darrai euskal pilota sustatzeko lanarekin. Pilota klaseak emateaz gain, pilota txapelketa antolatzen du ikastolak, neska-mutilen artean pilotarako zaletasuna sustatzeko. Hain zuzen ere, igandean hasiko da XXI. Iñigo Aritza ikastolako Pilota Txapelketa.

Ligaxkako partidak azaroaren 25ean, abenduaren 2an eta 16an eta ilbeltzaren 13an eta 20an jokatu dira ikastolako frontoian, 16:00etan. Finalak, aldiz, ilbeltzaren 27an erabakiko dira, Altsasuko Burunda pilotalekuan. Guztira 50 partaide izango dira, 34 mutil eta 16 neska.

### 1. jardunaldia

Iñigo Aritza Txapelketa: Igandean, 16:00etan, ikastolako frontoian

#### Umeak, benjaminak

- Ekhi Azpilikueta – Igarki Agirre
- Egoi Urtasun – Ekaitz Zufiaurre
- Edorta Amillano – Ekaitz Berdud
- Alaine Mendia – Juna Mendia
- Bidane Fdez. De Garaialde – Anitz Anda
- Ekhiñe Mariñelarena – Garazi Gartzia
- Urko Lanza – Kimetz Flores
- Aratz Sanzol – Ior Oroz

#### Kimuak

- Asier Zubiria – Mikel Arrizabalaga
- Alejandro Lopez – Beñat Andueza
- Oier Carabias – Hodei Ulaiar
- Enaitz Gonzalez – Xabier Olaiz
- Eñaut Gastesi – Aimar Igoa
- Alaitz Lanza – Ane Diaz
- Amets Izquierdo – Haizea San Roman

#### Haurrak

- Iker Agudelo – Eneko Andueza
- Aimar Gracia – Aimar Bengoetxea
- Arkaitz Agirretxe – Ander Goikoetxea

# Binakakoa: Ezkurdia, Zabaleta eta Martija lanera

**PILOTA** Gaur, ostiralean hasiko da Binakako Txapelketa, Amezketan: Ezkurdiak eta Galarzak Altuna eta Martija izango dituzte aurkari (22:00, ETB1). Aldiz, Irribarria-Zabaleta Elezkano II.a-Rezustaren kontra ariko dira igandean

Lau t'erdien ajea pasatu gabe, EPEL-ek Binakako Txapelketa aurkeztu zuen asteartean Bilbon. Ostiralean hasiko da txapelketa, Amezketan, eta apirilaren 7an jokatzekoa da finala, Bilboko Bizkaia pilotalekuan.

Guztira 8 bikote lehiatuko dira, lau enpresa bakoitzeko, bi multzotan banatuta. A multzoan Aspeko ondoko bikoak daude: Altuna III.a-Martija, Elezkano II.a-Rezusta, Ezkurdia-Galarza eta Irribarria-Zabaleta. B multzoan aldiz, Asegarceko Olaizola II.a-Albisu, Urrutikoetxea-Aretxabaleta, Bengoetxea VI.a-Imaz eta Artola-Mariezcurrrena II.a. Olaizola II.ak eta Albusuk bikote sendoenetakoa osatzen dutela aipatu zuten gehienek, eta Irribarria-Zabaleta eta Elezkano II.a-Rezusta ere sartu zituzten faboritoen artean. Aspeko zuzendari komertzial Iñaxio Errandoneak azaldu zuenez, Aspek zalantza asko izan zituen bikoteak osatzeko, bikote misto bat osatzeko zorian egon ziren. "Asegarceko atzelari bat utzita hartzeko aukera aztertu genuen, baina Ladis Galarzak azken partidetan erakutsi duen jokoa ikusita, txapelketa jokatzeko moduko sasoiari dagoela uste dugu" esan zuen Errandoneak. Joseba Ezkurdiarekin ariko da Baraibarkoa.

Txapelketako lehiatzeko sisteman ez dago aldaketarik. Final laurdenetako ligaxkan 14 jardunaldi jokatu dira, denak denen aurka bi itzulitan; ondoren 3 jardunaldiko finalerdietako ligaxka helduko da eta, azkenik, Bizkaian jokatu den final handia. Bestalde, enpresek pilotariak nahi bezala aldatzeko aukera izango dute eta aurten ez da botilerorik egongo.

#### Datorrena

Asteburuan jokatu da final laurdenetako ligaxkako 1. jardunaldia. Ezkurdiak Ladis Ga-



Asteartean aurkeztu zuten txapelketa, Bilbon. Bertan jokatu da finala. ASPE

## ZABALETAK ETA EZKURDIAK BIKOTEA ESTRENATUKO DUTE ETA MARTIJA ATZERA ERE ALTUNAREKIN

larzarekin osatuko du bikoa Altunaren eta Julen Martijaren kontra aritzeko. Partida gaur, ostiralean jokatu da, Altunaren etxean, Amezketan.

Ezkurdiak azaldu duenez, txapelketan ongi hasia garrantzitsua izaten da, animoa goian izateko. "Gustura nago Ladisekin jokatzearekin. Garai onean dago, eta nik ahalik eta gehien laguntzen saiatuko naiz; ea lan ona egiten dugun eta lehiakorrek garen. Partidaz partida joatea da kontua" azaldu zuen lau t'erdiko txapelkunak. Asteazkenean material aukeraketa egin zuten Amezketan eta entrenatzeko aprobetxatu zuten. Zalantzarik gabe, elkarrekin konfiantza lortzea gakoa izanen da Ezkurdiarendako eta Galarzarendako, gutxitan jokatu baitute elkarrekin eta bikotea egitea, hori da falta zaiena.

Julen Martijak Altunarekin errepikatuko du bikoa, aurreko urtean ere elkarrekin ibili ziren, eta, hortaz, ez dute hasi berrien lanik egin behar izango. Ostiralekoa partida gogorra izango dela aurreikusten da.

Bestalde, Zabaletak ere bikoa estreinatuko du: Irribarria. Aurreko urtean bikote izan ziren Elezkano II.a eta Rezusta izango dituzte aurkari igandean Bergaran. Kasu honetan ere bikotea sortzeko eta elikatzeko lanak egin beharko dituzte Zabaletak eta Irribarriak.

### 1. jardunaldia

#### Binakako Txapelketa

- **Altuna-Martija / Ezkurdia-Galarza** Gaur, ostirala, 22:00. Atun. ETB1
- **Olaizola II.a-Albisu / Urruti-Aretxabaleta** Larunbata, 17:45. Labrit. ETB1.
- **Elezkano II.a-Rezusta / Irribarria-Zabaleta** Igandea, 17:00. Bergara. ETB1.
- **Bengoetxea VI.a-Imaz / Artola-Mariezcurrrena II.a** Astelehena, 16:30. Tolosa.



Goizeder Beltza EGUR SPORT

## AIZKORA Goizeder Beltza hirugarrena EHko 3. Mailakoan

Igande eguerdian 3. Mailako Euskal Herriko Aizkora Txapelketako finala jokatu zen Larra-betzun. Sei aizkolari lehiatu ziren, Goizeder Beltza etxarriarra tartean. Hiru kana-erdiko eta bi 60 ontzako pago enbor erdibitu behar izan zituzten sei finalistek.

21 urteko Barakaldoko Julen Larreak aurrea hartu zuen hasieratik eta bera izan zen azkarrena eta txapelduna, merezimendu osoz (13:29). Bigarrena Arratiako Hodei Ezpeleta gaztea sailkatu zen (13:55). Biek mailaz igotzea lortu zuten eta hurrengo urtean Euskal Herriko 2. mailan ariko dira.

Goizeder Beltza aizkolaria mailaz igotzeko zorian egon zen. Hirugarren postuan despeditu zituen lanak (14:19) eta, tamalez, mailaz igotzeko 24 segundo eskasera geratu zen etxarriarra. Txapelketako laugarrena Jokin Alkizalete izan zen (14:53), bosgarrena Jesus Etxeberría (16:29) eta seigarrena Beñat Lekue (16:39).

## PILOTA Nafarroako Gazteen Lau t'erdia sakandarrik gabe

Nafarroako Lau t'erdiko final laurdenetan ordezkari sakandarrik gabe geratu gara. Oskozek (Oberena) 18 eta 8 irabazi zion Agirrerri (Erreka), Apezetxeak (Umore Ona) 6 tantotan utzi zuen Ballarena (Txaruta), De la Fuentek (Ultzama) 18 eta 8 irabazi zion Galartzari (Larraun) eta Ganboa (Oberena) 11 tantotan utzi zuen Ariztegik (Txaruta).



SAKANA TRIATLOI TALDEA

## Garcia bosgarrena Ikaztegietan

**ATLETISMOA** Larunbatean 75 korrikalarik osatu zuten 25. Ikaztegietakoko herri krosa (10 km), Alvaro Ramos (33:02) buru zela. Dantzaleku Sakanako Sergio Garcia bosgarrena sartu zen (34:22). Bere taldekide Juan Carlos Gomez 16.a iritsi zen (36:00), Iban Sobredo 19.a (37:00), Francisco Javier Gomez 24.a (37:56) eta Iban Gonzalez 49.a (40:38).

## Altsasun pista atletismoa

**ATLETISMOA** Dantzalekuko pistetan Nafar Kirol Jolasen (NKJ) Udazken-Neguko Atletismo Pistako 14 urtez azpikoen lehen jardunaldia jokatu zen larunbatean, Nafarroako Atletismo Federazioak antolatuta. Eguraldia lagun, 14 urtez azpikoen luzera-jauzia, 500 m, 150 m, 3.000 m distantziako lasterketak eta erreleboak jokatu ziren, besteak beste.



NAFARROAKO ATLETISMO FEDERAZIOA



EUSKADI-MURIAS

## Euskadi-Muriasekoak Irurtzunen

**TXIRRINDULARITZA** Asteburuan Euskadi-Murias txirrindularitza talde profesional kontinentaleko kideak Irurtzunen kontzentratu ziren, 2019ko denboraldia prestatzeko. Tartean, txangoa egin zuten Beriainera. Jakina denez, Euskadi-Muriaseko staffean Patxi Mundiñano etxarriarra dago. Mekanikari izateaz gain, zuzendari laguntzailea ere bada Mundiñano.

# Burunda klubeko denboraldi bukaera festa

**TXIRRINDULARITZA** Aurreko ostiralean Burunda Txirrindularitza Taldeak urteko batzarra egin zuen Altsasuko Iortia Kultur Gunean eta larunbatean Urdiaingo Aitziber elkartearen bazkaltzera bildu ziren taldekideak eta gurasoak

Burunda Txirrindularitza Taldeak ostiralean urteko batzarra egin zuen Iortia Kultur Gunean. Urteko balantzea egin eta gero, klubeko txirrindulari guztiei oroigarria eman zien klubak. Ekitaldira Eginoko Lourdes Oiarbide gonbidatu zuten, Movistar Team taldeko txirrindularia. Hain zuzen ere berak banatu zituen oroigarriak, eta bildutakoan galderak erantzun zituen. Hurrengo egunean, larunbatean, Urdiaingo Aitziber elkartearen bildu ziren Burundako kideak, bazkari ederrean. 2019ko denboraldi berriko erronkak izan zituzten hizpide.

### Sakandarrak Amorebieta Etxano Ziklokros Sarian

Errepideetako txirrindularitza despeditzerakoan hasten da, normalean, ziklokros denboraldia. Dagoeneko proba batzuk jokatu dira, tartean igandean Amorebieta Etxano Saria. Kadeteek 2,8 km-ko zirkuituari 5



Txirrindulari guztiek denboraldiko oroigarria jaso zuten. BURUNDA TXIRRINDULARITZA KLUBA

itzuli egin behar zizkioten, eta Viveros San Anton taldeko Ander Altuna izan zen azkarrena (36:29). Quesos Albeniz taldeko Jon Chamorro 11.a sartu zen (38:08), Intersport Irabiako Aimar Tadeo 17.a (40:03) eta Quesos

Albenizko Oihan Etxeberria 34.a (42:23). Juniorrek, aldiz, 2,8 km-ko zirkuituari 6 itzuli eman zizkioten. Ekin taldeko Aitzol Sasietak irabazi zuen (42:18) eta Quesos Albenizko Iker Mintegi 12.a sailkatu zen (45:02).



J. L. GORRIA

## Xotak Ane Begiristain gogoan

**ARETO FUTBOLA** Asteburu tristea izan da hau Etxarri Aranatzen, bertakoa baitzen larunbatean mendi istripuz Beriainen zendutako Ane Begiristain Igoa. Etxarri gaztea kirolari handia zen, eta hainbat denboraldi egin zituen emakumezkoen Xota areto

futbol taldean, seniorretan. Aurretik ere Aldabide areto futbol taldean ibilia zen.

Horrela, Irurtzungo Xota klubean Begiristain izan zuten gogoan asteburuan jokaturako partidatan; bere aldeko ixiluneak gorde zituzten.



Itigo Aritz ikastolako neska-mutikoak, Aste Txuriko aurreko edizio batean. ARTXIBOA

# Sakandarrak 35. Ipar Eskiko Eskola Kanpainan

**ESKIA** Ilbeltzaren 7tik apirilaren 12ra bitartean gauzatuko da Aste Txuria, Erronkari eta Zaraitzuko ibarretan. Tartean Sakanako zenbait ikastetxeek hartuko dute parte. Otsagi edo Izaba aterpe dutela, eskian eta beste hainbat ekimenetan murgilduko dira

Aurreko astean aurkeztu zuten Ipar Eskiko Eskola Kanpainaren 35. edizioa. Kanpaina ilbeltzaren 7an hasi eta apirilaren 12ra bitartean luzatuko da, Erronkari eta Zaraitzuko ibarretan eta Nafarroa osoko 155 ikastetxetako 5.500 ikasle inguruk eta 436 irakasle inguruk hartuko dute parte. Tartean daude Sakanako hainbat ikastetxe.

Aste Zuria du izena Ipar Eskiko Eskola Kanpainak, eta makina bat ikastetxe sakandarrek urteak daramatzate bertan parte hartzen. Beste batzuk aurten hasiko dira lehen aldiz. Esperimentzia positiboa dela diote eta ikasleak eskiatzera joateko zortzen egoten direla.

## Eskia baino gehiago

Partaideen artean, ikasle gehienak Lehen Hezkuntzako 6. mailakoak eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoak dira.

Partaideen eski mailaren araberako taldeetan banatuta, goizean ikasleei nahiz hauekin batera datozen irakasleei ipar eskia edo iraupen eskia era ludikoan ikasi eta horretan trebatzeko aukera eskaintzea da aste honen helburu nagusia. Erronkari eta Zaraitzuko ibarrek natur eremu ikusgarria eskaintzen dute eskian jarduteko.

Arratsaldean, hainbat jarduerara antolatuko dira. Kanpaina Erronkari eta Zaraitzuko ibarretan egiten dutenek antzerki-emanaldiak ikusi, Iza-

bako udal igerilekura joan, herri kiroletan saiatu eta Erronkari Natura Interpretatzeko Zentroa nahiz Julian Gaiarre Museoa bisitatzeko aukera izanen dute. Zaraitzuko Iboxan, herri kiroletan trebatzeaz gain, epele zurezko eskulanak egin eta Otsagabiko Natura Interpretatzeko Zentroa bisitatu ahaliko dute. Gainera, bi ibarretan, ostegun arratsaldean festa antolatuko dute eski kanpainan parte hartzen duten ikasleentzat.

Aurtengo kanpainan, inguruaren zainza lantzen jarraitu nahi da. Besteak beste, birziklatzea sustatuko da eta uraren eta energiaren kontsumoaren garrantzia azpimarratuko da.

du ziren. “Aldearekin irabaztearen beharra genuen” azaldu zuten Imanol Arregik.

Palma Futsal da liderra (24 puntu) eta Osasuna Magna 8.a da (15 puntu). Bihar, larunbatean, 19:00etan, Movistar Interren kontra ariko da talde berdea Madrilen (Teledeporte), eta asteartean, azaroaren 27an, 20:00etan, derbia jokatu du Aspil Vidal Ribera de Navarrak Anaitasun (Teledeporte). Bi partida konfliktuetan maila ona eman nahi dute berdeek.

## Osasuna Magnak Movistar eta Aspil Ribera ditu aurkari

**ARETO FUTBOLA** Bihar Madrilen jokatu dute berdeek eta asteartean Anaitasunak nafarren derbia hartuko du

Osasuna Magnak hiru puntu oso garrantzitsu lortu zituen aurreko ostiralean Anaitasun Valdepeñasen kontra. Berdeak partidaren jaun eta jabe izan ziren. Chinok, Llamasek eta Eric Martelek 3 eta 0 aurreratu zuten

Osasuna Magna eta Valdepeñas egoerari buelta emateko zorian egon zen, 3 eta 2 gerturatu zelako, baina ongi erantzun zuten berdeek eta Araçak, Rafa Usinek (2) eta atzera ere Eric Martelek sartutako golekin 7 eta 3 gailen-

## SAKANAKO TOPAKETAK

### PARTIDUAK

IGANDEAN, UHARTE ARAKILEN

10:00	Urdiain – Sutegei A
10:50	Altsasu A – Sutegei 1
11:40	Altsasu B – Altsasu C
12:30	Etxarri Aranatz 1 – Betelu
13:20	Etxarri Aranatz A – Aralar Mendi

### Sakanako Futbol Topaketak: benjaminen 2. jardunaldia

Sakanako Futbol Topaketak Mank-ek antolatzen ditu, Sakanako futbol klub eta taldeen laguntzarekin. Futbola sustatzea da helburua, eta txikienei txapelketa batean parte-hartzea ahalbideratu nahi zaie, baina ez da txapelketa lehiakorra. Igandean benjaminen mailako 2. jardunaldia jokatu da Uharthe Arakilen.

## ELOMENDI TXAPELKETA

### 7. JARDUNALDIKO EMAITZA

Basati – Zaldua 0-8

### SAILKAPENA

ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA	
1	Zaldua 16
2	Barasoain 14

### PARTIDUA

LARUNBATEAN

Zehaztu gabe Modernillo – Zaldua

### Zalduaren gol festa ederra

Elomendiko Futbol Txapelketan 7. jardunaldia jokatu zen asteburuan. Etxarrengo Zalduek Basati taldea izan zuten aurkari eta gol festa ederra ospatu zuten arakildarrek, 0 eta 8 irabazi baitzuten Ukarren. Lider jarraitzen du Zalduek eta bi puntura du Barasoain.

## SASKIBALOI A CBASK-ek Valle de Egües izango du aurkari bihar

Autonomia Arteko 2. mailan asteburu honetan zazpigarren jardunaldia jokatu zen baina Altsasuko CBASK taldeak atsedean jardunaldia zuen eta, hortaz, ez zuen partidarik jokatu.

Zazpigarren jardunaldia eta gero, Autonomia Arteko 2. mailako lider jarraitzen du Domiberia taldeak (13 puntu) eta CBASK taldea zazpigarrena da (8 puntu). Asteburu honetan CBASK-ek Valle de Egües izanen du aurkari larunbatean 18:00etan Olaz kirolegian jokatu den partidaren. Valle de Egües hamargarrena da sailkapenean, 6 punturekin, eta puntu faltan dago, CBASK taldea bezala. Beraz, lehia estua espero da.

## FUTBOL PREFERENTEA

### 10. JARDUNALDIKO EMAITZA

Etxarri Aranatz - Aibares 1-0

### SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Artajones	19
7	Etxarri Aranatz	15

### PARTIDUA

IGANDEAN

16:30 Artajones – Etxarri (Artaxoan)

### Etxarri irabazi eta gora

Etxarri eta Aibares kiroltasun handiarekin aritu ziren eta ez zuten txartela bat bera ere ikusi. Partida lehiatuan, arbitroak Aibaresen gol bat baliogabetu zuen, ustez joko kampo zelakoan. Ondoren Itigo Etxarriren aldeko gola sartu zuen.

## FUTBOL ERREGIONALA

### 11. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Lagun Artea – Berriozar 5-0

Altsasu – Beti Kozkor 0-0

### SAILKAPENA

ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

2	Lagun Artea	26
5	Altsasu	18

### PARTIDUAK

IGANDEAN

15:45 Lagun Artea – Beti Kozkor (Lakuntzan)

15:30 Altsasu – Gazte Berriak (Dantzalekun)

### Lagun Artea lider da berriz

Lakuntzako Lagun Arteak goitik behera menperatu zuen Berriozar. Unai (3), Burillok eta Hermosok sartutako golei esker 5 eta 0 gailendu zen Lagun eta erregional mailako lidergoa berreskuratu zuen. Altsasuk, bere aldetik, Beti Kozkor taldea hartu zuen. Altsasuarrak saiatu ziren, baina ez zuten Lekunberrikoen atea zulatzea lortu eta husrakako berdinketarekin puntu bati eutsi zioten.

## EMAKUM. ERREGIONALA

### 11. JARDUNALDIKO EMAITZA

Lagunak – Altsasu 2-0

### SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Osasuna	33
11	Altsasu	10

### PARTIDUAK

LARUNBATEAN

15:45 Altsasu – Ardoi (Dantzaleku)

### Altsasu-Ardoi, arerio zuzenak

Altsasuk ezin izan zuen Barañandik punturik ekarri. Bihar puntu berekin sailkapenean 12.a den Ardoi izango dute aurkari. Hortaz, arerio zuzenen arteko lehia izango da Dantzalekuko, sailkapena jokoan baitago.

# "Memoria oso ahula da, eta beldurrez beteta"

**TXUSPO POYO ARTISTA**

Diziplina anitzetako artista da Txuspo Poyo altsasuarra. Zinemaldian 'Izaro' filma aurkeztu zuen eta Iruñeko 948 Merkatuan 'Engaña tunela' lana erakutsi zuen

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

Asteazkenean mustu zuten Iruñean 948 Merkatua. Artisten eta kultur eragileen topalekua da, eta hiru egunetan hainbat ekimen, jarduera, hitzaldi eta erakusketa antolatu dituzte. Ostegunean aurkeztu zuen Txuspo Poyo artista Altsasuarrak Engaña tunelaren inguruko proiektua. Ziudadelaren Armen gelan izan zen.

**Zer da 'Engaña tunela' proiektua?**

Kantabriako mendilerroan abandonaturiko 7 kilometrotako tunela da Engaña. Azpiegitura erraldoia da. Eraikitzeke preso errepublikazaleak erabili zituzten. Esklaboak ziren. Bi herri eraiki ziren, mendiaren alde bakoitzean. Bi urte eta erdi aritu nintzen proiektu honetan, baina tunela eraikitzen pasa zituzten hogeitau urteekin alderatuta, hasperen bat baino ez da.

**Zergatik istorio hau?**

Ni ez naiz historialaria, eta historiaz hitz egiten dudanean artearen bidez egiten dut. Honek aukera eman dit gai asko modu transbertsal batean jorrazteko. Gai hauek, nolabait, elkartzuta daude; sare handi bat bailiran. Historia aparteko zerbait bezala aurkezten zaigu, baina errealtatean historia gure iragana, orainaldia eta etorkizunaren



Txuspo Poyo artista. UTZITAKOIA

espekulazioa da. Tunelera kasualitatez iritsi nintzen eta sartu nintzenezan hotzikara handi bat sentitu nuen. Tunelaren historiaz irakurtzen hasi nintzenez ondoeza handitu zen.

**Tunela biziberritzeko modu bat da?** Memoria oso ahula da eta beldurrez beteta. Memoria orainalditik hasten da eta iraganaz galdetzeko aukera ematen digu. Gaurkotze ariketa bat da. Historia gabeziez beteta dago eta artearen bidez aztertzeak orainaldia ezagutzeko aukera gehiago ematen digu.

**Proiektua sortzeko alde artistikoa egin aurretik asko ikertu zenuen?**

Proiektu guztiek bezala ikerketa lan handia behar izan du: gertaerak eta istorioak aztertzea, artxiobak arakatzea, bertsio kontrajarriak egiaztatzea... eta horrek denbora behar du. Pertsonalki ez zaude beti gogobertotasun berdinarekin. Batzuetan aukerak eta zalantzak sortzen zaizkizu. Artearen prekaritate ekonomikoa ere hor dago.

**Nola izan zen errealizazioa?**

Proiektua handitzen joan zen bertan lan egin zuten bizirik

dirauei elkarrizketak egin genien. Diario Montañes-eko Teresa Cobo kazetariari elkarrizketa egin genion ere. Historia osoa erreparatu genuen berarekin. Hiru testigantzak ezinbestekoak izan ziren. Bigarren zatia ikerketaren formalizazioa izan zen. Horretarako hiru pantailetako ikus-entzunezko lan bat egitea erabaki nuen. Lekuari ahotsa emateko modu bat zen. Elkarrizketak entzuten ditugu tuneleko langile bat barrutik joaten ikusten dugun bitartean. Pantailak herri abandonatuetatik, tren geltetik, elizetatik eta igeltseroen etxeetatik ibilbidea egiten dute.

**Zergatik bideolanak?**

Nire lanak irudiaren eraikuntzarekin zerikusia dauka. Ikus-entzunezkoak proposamen batzuk aurrera eramateko aukera ematen dit. Gainera, marrazkiak, objektuak, maketak eta 3D animazioak egiten ditut ere.

**Zinemaldian zure lehenengo filma aurkeztu zenuen: 'Izaro'. Zergatik istorio hau?**

Ni ez naiz zinegilea. *Izaro* arte proiektu bat da zinema jaialdi batean. Gure gertuko iraganaren eta orainaldiaren arteko hari bat da Izaro irla.

**Bi lanen arteko antzekotasunak daude?**

Hainbat aspektutan Izarok tunelarekin antzekotasun handia du. Are gehiago, *Izaro* proiektua 2012an hasi nuen eta 2014 eta 2016 urteen artean utzi nuen tunelagatik. Bai *Izaro* bai tunela herrietako gertakarietatik sortzen dira eta balio globala hartzen dute. Historian hutsune bat dira biak, kontaera bat egiteko aukera ematen dutenak. Bi istorioek dute garrantzi kulturala, politikoa, soziala eta ekonomikoa.

## Literaturaren bidez elkartasuna adierazi

Altsasukoak Aske

Literatura-Lehiaketan parte hartzeko epea urtarrilaren 14an bukatzen da

ALTSASU

Altsasuko auzia deitutakoari buruz gauza asko esan dira, hamaika modutan. Oraingoan, bigarren aldiz, Altsasukoak aske gaia hartuta literatura ariketa egiteko deia egin du Altsasukoak Aske herri asanbladak. Literatura-lehiaketaren bigarren edizioa martxan jarri dute. Hiru sail izanen ditu: narrazio laburra, olerkia eta mikro-ipuina. Lanak aurkezteko epea 2019ko urtarrilaren 14an bukatzen da.

Altsasukoak Aske literatura-lehiaketara aurkeztutako lanak originalak eta euskaraz zein gaztelaniaz izan daitezke. Gaia, betiere, Altsasukoak aske izan behar da. Hiru sailak ez ezik -narrazio laburra, olerkia eta mikro-ipuina-, bi kategoria daude ere: 14 eta 18 urte bitartekoa eta 18 urtetik gorakoa. Luzerari dagokionez narrazioan gehienez 2 orrialdekoak izan behar dira lanak, olerkiak gutxienez 14 lerrokoak izan behar dira eta mikro-ipuina gehienez 10 lerrokoak izan behar dira.

Lanak plika sisteman aurkeztu behar dira helbidera honetara bidaliz: Santa Kruz kalea, 36 zenbakia; Altsasu, 31.800. Epaimahaia literatura adituak diren sakandarrek osatuko dute.

## Bi munduen arteko lubakiaren inguruko antzerki hausnarketa

Titzina teatre konpainiaren 'La Zanja' antzezlanaren eginen dute bihar, azaroaren 24an, 19:30ean, lortian

ALTSASU

Multinazional bateko langile bat Hegoafrikako ustiapen batera joan da. Bertako herritarrak bisitariaren etorreraren zain daude. Bi munduen eta bizitza ulertzeko bi moduen arteko tal-

ka sortzen da. Hori da Titzina teatre konpainiak *La Zanja* antzezlanarekin aurkeztu duen istorioa: botere harremanek nola eragiten duten. Tragikomedia bat da. Bihar, azaroaren 24an, izanen da emanaldia 19:30ean.

Titzina antzerki konpainiak antzerkia baino zerbait gehiago egiten du. Lan bakoitza prestatzeko ikerketak egiten dituzte istorioa eta pertsonaien barneak ezagutzeko. *La Zanja* antzezlanaren sortzeko, Pizarro kolonoaren eta Atahualpa Inken buruaren arteko topaketan inspiratu dira: bi kulturen artean sortutako desberdintasunak eta mundua interpretatzeko moduak. Hortaz, antzezlanaren sortzeko Titzina konpainiako kideek garaiko kroniketan oinarritu dira.

**MUSUA, PIRITX PORROTX**  
ETA **MARIMOTOTS**

**SARRERAK SALGAI:**  
Martxuetan, Pikuxarren  
eta Estankoan Irurtzunen  
Maimurren Leitzan  
Geltokin Iruñean

**ABENDUAREN 3AN**  
**17:00ETAN**  
**IRURTZUNGO KIROLDEGIAN**

**7€**

# Karasatorre Izeta

## VIII. Sariketaren finalera

Gaur, azaroaren 23a, ostirala, 19:30ean, jokatuko da Mariano Izeta Sariketaren 8. finala Elizondoko Arizkuenean. Saats Karasatorre etxarriarra sailkatu zen Irurtzongo Pikuxar elkartearen jokatu zen kanporaketan. Idoia Granizo laugarren sailkatua izan zen

### IRURTZUN

Irurtzunen eta Lizarran jokatu ziren Izeta Sariketaren bi kanporaketak aurreko ostiralean, azaroaren 16an. Bi sakandarrak parte hartu zuten Irurtzongo kanporaketan, Idoia Granizo altsasuarrak eta Saats Karasatorre etxarriarrak. Kanporaketa bakoitzetik hiru bertsolari sailkatu ziren, eta etxarriarrak lortu zuen finalean egotea. Irurtzongo hirugarren sailkatua izan zen Karasatorre.

### Sakandarrak ongi

Karasatorrerekin batera, Mikel Lasarte eta Amaia Elizagoien bertsolariek lortu zuten finale-rako txartela. Mikel Lasarte izan zen Irurtzongo hoberena 180 punturekin. Elizagoienek 170,5 puntu lortu zituen eta Karasatorrek 166,5 puntu. Idoia Granizo bosgarren lekuan gelditu zen 160,5 punturekin. Zigor Gartzia izan zen gai-jartzailea eta Arkaitz Goikoetxeak, Miel Mari Eloseggi "Luze"-k eta Joxema Leitzak egin zituzten epaile lanak.

Egun berean jokatu zen Lizarrako Izeta Sariketaren kanporaketa. Josu Sanjurjo, Xabat Illardegi eta Sari Robles bertsolariak finalera sailkatu ziren. Hala ere, Illardegi ezingo da Elizondoko egon eta Irati Majue-



Saats Karasatorre Irurtzunen jokatu zen kanporaketan. NAF. BERTSOZALE

lo laugarren sailkatua egonen da. Beraz, gaur, azaroaren 23a, ostirala, Elizondoko Arizkuenean egingen den finalean Mikel Lasarte, Amaia Elizagoien, Saats Karasatorre, Josu Sanjurjo, Sarai Robles eta Irati Majuelo bertsolariek parte hartuko dute.

Elizondoko finalean puntu gehien biltzen dituen bertsolariari txapela jarriko zaio; gainera, bertso onena ere sarituko du epaimahaiak. Gaurko finalean bertsolariek 8ko handian eta txikian, binaka, hiruna bertso egin beharko dituzte; zortziko

txikian, banaka, bi punturi erantzun beharko diete; binaka gai bati buruzko hiruna koplak sortu eta bakarka gai bati buruzko bina bertso egin.

### Izeta sariketa

Nafarroako bertsolari gazteei eta hasiberriei bultzada emateko eta sustatzeko sortu zuten Mariano Izeta Sariketa Nafarroako Bertsozale elkarteak eta Baztango Udalak. 2006. urtean Izeta Sariketaren txapela Sakana etorri zen Oier Lakuntzaren eskutan.



### BAZTERRETIK

JUANKAR  
LOPEZ-MUGARTZA

## Don Marino, hilabete eskas dagoela Altsasun

Iritsi nintzenetik hauze izan da nire lana: herritar guztiei elizan babesa ematea eta nire parrokia biztanle guztientzat irekita izatea, leku sakratu honetara hurbiltzen diren guztiek laguntza aurki dezaten.

Iritsi bezain laster, lehenengo igandean, pulpitora igo nintzen eta handik nire ekintza berriaren goiburua azaldu nien han bildutakoei: "ozenki pentsatu, sakon sentitu eta argi hitz egin".

Egia esan, leloa ez da nirea, Rivasko Dukearena baizik, poesiaren definizioa omen. Baina neure egin dut, eta nire iparra izanen da hemendik aurrera.

Duela hilabete iritsi nintzela eta oraindik ez dut ia denborarik izan hemengo errealitatea ezagutzeko, baina, dagoeneko, hodei beltzak nabaritzen ditut gure zeruan. Oinazea eta tristura. Agerikoa da herri osoa zigortzen ari direla.

Altsasuri buruz entzuten ari naizen berriek, parrokiari

buruz, bihotza erdiratzen didate, denok dugu tristezia sentipen bera, oxigenoa bilatu behar da nonbait. Lehenengo igandean nire eliztar maiteei kezka handiz esan nien: "Presta zaitezte aste honetan entzun beharko dituzuenentzat... gezurrak, manipulazioa..."

Oraindik gogoratzen naiz duela hilabete goiz eguzkitsua hartaz. Adio esateko ordua ailegatu zelarik, galdetu nion: "Agur t'erdi, apezpiku jauna, Altsasura joateko ordua iritsi zait. Zer nolako aholkurik eman nahi didazu han egin dezadan? Betebehar bereziren bat?"

Orduan berak erantzun zidan: "Zer nahi duk esatea? Ongi ezagutzen haut eta bazekiat egingo duana ongi egingo dela... baina, halere, bai, bazegok gauza bat aholkatu nahiko niakeena: hoa Altsasura eta ez esan ezer, baina hire izakeragatik eta hire egitekoengatik argi gera bekie beste altsasuar bat baino ez haizela."

Orain elizan nago, argizarien argitan meditatzen. Halako batean, kanta batek isiltasuna apurtzen du, Mixel Labeguerie kantari lapurtararenak kanpandorretik kantaturik.

Gure eliz dorreko ezkiila zaharrak... dilin-dalan-dalan, din-dan boleran... Kanta beza ezkiilak menderen mendetan, kanta beza bizi Euskal Herrietan!!

## Euskal Herriko dantzak eta Gaztelako jotak bihar Irurtzunen

Udazkeneko dantza jaialdia antolatu du Orritz taldeak. Sietemancas Valladolideko taldea da gonbidatua

### IRURTZUN

"Azken urteetako ohiturari jarraituz" Orritz dantza taldeak Udazkeneko jaialdia antolatu du bihar. Sietemancas taldearekin senidetza indartuko dute biharko ospakizunean. Sietemancas Simancako, Valladolid, dantza talde bat da eta bi taldeen arteko senidetza "duela hainbat hilabete" sortu zen Orritz dantza taldea Simancako XXXIV. Nazioarteko Folklore jaialdira joan zirenean, Oskia Ollakarizketa Orritz taldeko kideak azaldu duenez.

Bihar goizean iritsiko dira simancarrak Irurtzunera, eta arratsaldean bi taldeak kalejiran aterako dira "eguraldiak laguntzen badu". Ondoren, frontoian, dantza jaialdia izanen da. Orritz dantza taldeak Euskal Herriko dantzak eskainiko ditu eta Sietemancas taldeak hainbat jota eta makil-dantza egingen ditu gaita doinuez lagunduta. Bi taldeetako kideak afarian bilduko dira Pikuxar elkartearen. "50 bat pertsona egonen gara dantzari eta musikarientzatean".

## Manezen bidai musikatua

Manez eta Kobreak kontzertua antolatu zuten Berría egunkariak, Sakanako Berrialagunak, Sakanako Mank-ek eta Altsasuko udalak elkarlanean larunbatean. Iortia kultur guneko gela ia bete zen Thierry Biscaryren taldearen doinu "ibiltariak" entzuteko. Ahotsak eta haize instrumentuak nahasten ditu taldeak. Martxoan kaleratu zuen lehen diskoa.





Transoceanica ikuskizuna. UXUE MONTERO

## Inguruneaz artearen bidez hausnartzeko emanaldiak

Olaztiko kultur etxean bi ikuskizun egonen dira asteburuan: musika larunbatean eta dantza igandean

### OLAZTI

Artearen eta kulturaren bidez artistek inguruneaz hausnartu egiten dute. Bakoitzak bere era-ara, gizakiaz eta gizarteaz gogoe-ta egiten dute. Hori da, hain zuzen, Olaztiko kultur etxean astebururako proposatu dituzten emanaldiek aurkezten dutena. Bihar, azaroaren 24, larunbata, Julia Itoiz rap abeslariak *Politicamente Incorrecta* lana aurkeztuko du, 22:30ean. Igandean, azaroaren 25ean, 17:00ean, Carmen Larraz dantzariaren *Tran-soceanica* ikuskizuna izanen da.

Julia Itoiz rap abeslaria La Chula Potra izengoitia-ekin da ezaguna. Errotxapeakoa da Itoiz, eta haren estiloaren bereizgarrietako bat mihi zorrotasuna da. Bere diskurtsoa zehatza da eta mezuak argiak dira: arrazismoaren kontra, gizakiaren pentsamenduak, gizarte gaiak, injustiziak eta politika. Mezuak,

gainera, doinu oso dantzarriekin uztartzen ditu

Bihar, azaroaren 24an, La Chula Potra rap abeslariak *Politicamente Incorrecta* lana aurkeztuko du Olaztiko kultur etxean, 22:30ean.

Igandean, azaroaren 25ean, Carmen Larraz dantzariaren *Tran-soceanica* ikuskizuna izanen da Olaztiko kultur etxean, 17:00etan. Larrazek diziplina anitzeko proposamena egiten du, hortaz, dantza, argazkiak eta musika uztartzen ditu. Argazkiak Uxue Montero argazkilaria-renak dira eta Larrazen mugimenduekin bat egiten dute. Gainera, argazkien proiektzioak eta dantzak Hilario Rodeiroren musikaren doinuak jarraitzen dituzte. *Tran-soceanica* ikuskizunak ingurunea entzutearen garrantziaz hitz egiten du, baita gizakiaren etengabeko bilatzearen hausnarketa egiten du ere.

igandera arte, azaroaren 25, ikusgai dago Gure Etxeko beheko solairuan.

33. urtez antolatu du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak Ferietako Argazki Rallya. Eguraldi txarraren ondorioz aurreko urteekin alderatuta parte-hartzaile gutxi izan dira: 15 argazkilarik egon ziren ferietan argazkiak egiten. Bihar, azaroaren 24an, 19:30ean parte hartzaileen argazkiak proiektatuko dituzte eta sari banaketa egiten dute.

## Ferietako argazki rallyaren emaitzak ikusgai

Pantaila handian proiektatuko dituzte Altsasuko Mendigoizaleak Altsasuko ferietan antolatzen duen Argazki Rallyan aurkeztutako lanak. Bihar, azaroaren 24an, Iortziako kultur gunearen gela txikian izanen da proiektzioa, 19:30ean. Gainera, argazki rallyaren irabazleei sariak banatuko zaizkie. Argazki Rallyra aurkeztutako argazkien erakusketa

# "1970ko hamarkadan gustura biziko ginateke"

**IÑAKI GASCO ETA GAIZKA OCAÑA** GARABATOS TALDEKO KIDEAK

Oso gazte hasi ziren Garabatos taldeko kideak musikaren munduan. 1970ko hamarkadaren doinuen zale dira, eta horren adibide 'Silencio' disko berria da

### Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Lakuntzako I. Pop-Rock jaialdian bigarren sailkatua izan zen Garabatos taldea. Alerta Gorriak irabazi zuen lehiaketa, baina Hatortxu Rock-en jotzea erabaki zuten. Hortaz, Garabatos taldeko kideek diska grabatzea erabaki zuten. "Azkenean" lortu dute haien lehenengo lana kalean ikustea: *Silencio*. Zazpi abestiz osatutako diskoa da. Iñaki Gasco (gitarra), Irati Lasa (ahotsa), Mikel Manero (bateria), Gaizka Ocaña (gitarra) eta Asier Palomino (baxua) musikariek osatzen dute taldea.

**Lakuntzako pop-rock lehiaketan parte hartu zenuten eta diskoa grabatzeko aukera irabazi zenuten. Aurretik diskoa grabatzeko nahia zenuten?**

**Iñaki:** Nahia bai. Nik uste talde guztiek dutela diskoa grabatzeko nahi hori. Eta saria bultzada izan zen. Sarian 40 orduko grabaketa saioa izanen zela jartzen zuten, baina gehiago egon ginen.

**Gaizka:** Ez genuen kontua eraman. Ritxi Areta estudiokoa ezaguna eta laguna zen.

**Nolako esperientzia izan da diskoa grabatzea?**

**I.:** Kriston esperientzia izan da. Disko grabatzearen atal guztiak. Lehenengo abestiak prestatu, bakoitzak bere lana egin eta gero estudioara joan eta dena elkartu... Gero abesti hori entzutea oso sentsazio polita da **Kontzertuetan, hasieran, bertsioak jotzen zenituzten. Zer nolako bertsioak?**

**I.:** Beti Rock-and-Roll. Abesti batzuk desbideratzen ziren, Gati-bu taldearen estiloko abestiak, esaterako. Baina bestela Guns and Roses, AC/DC, Bon Jovi eta estiloko taldeen abestiak jotzen genituen. Gustatzen zaizkigunak, azken finean.

**Diskoan estilo hori entzun daiteke?**

**G.:** Diskoan badaude abesti batzuk 1970ko hamarkadako musika burura ekartzen dituztenak.



Iñaki Gasco Claver eta Gaizka Ocaña Goikoetxea Garabatos taldeko kideak.

Ez gara horiek bezain onak, baina 1970ko hamarkadako kutsu hori aditu daiteke diskoan. Dena dela, ez da estilo zehatz batekoa. Badaude modernoagoak diren doinuak ere, Marea taldearen estilokoak. Ateratzen zaiguna jotzen dugu.

**Diskoak abestiak zuek egin dituzue, zuek sortu dituzue.**

**G.:** Bai. Gainera bien artean egin dugu, Iñakik eta biok.

**Nolako izan da sortze prozesu hori?**

**I.:** Lan asko dakar. Zaletasun bat da, baina horretara jarri behar zara. Niretako zailena letrak idaztea da. Melodiak ateratzen dira, eta gutxi gora behera gainetik abesten baduzu ateratzen dira. Baina letrak idaztea... Arrazoi bat izan behar duzu.

**G.:** Gainera guk egiten dugu gitarra reel bat sortu eta gero zer daukagun esateko pentsatu. Beste batzuek kontrakoa egiten dute, lehenengo idatzi eta gero gainean abestia egin.

**Abestiak gaztelaniaz eta ingelesez. Zergatik?**

**I.:** Agian ez da gure kontua. Abestiak konposatzen hasi ginen, Iratik, abeslariak, in-

gelesez abestea nahiago zuela esan zigen. Eta horregatik egin genuen.

**G.:** Lehen esan duguna. Guk gitarra hartzen dugu eta melodia bat sortzen dugu. Letra igual zaigu zer hizkuntzatan egon. Gaztelaniaz hobeto idatziko dugu gertuago dugulako, baina Irati ingelesez kantatzen dago gustura. Zergatik ez. Gainera, gure estiloa askotan ingelesarekin lotzen da.

**Gazteak zarete, nondik datorkizue 1970ko hamarkadako estiloarekiko zaletasuna?**

**I.:** Nik, adibidez, nire aitaren erreferentzia izan dut. Los del Rayoko baxua da. Etxean betidanik entzun dut Rock-and-Rolla. **G.:** Gustatzen zaigu. Duela berrogei urte inguru jaio bagina askoz gusturako biziko ginela uste dute. Musikaren aldetik, noski. Beste gauza batzuk ez zitzaizkigun gustatuko, baina musika bai.

**Lehenengo aldia da abestiak egiten dituzuela?**

**I.:** Aurretik banituen batzuk idatzita, baina garrantzi gabekoak. Zatiak ziren. Reel batzuk nituen eta letra jarri nien.

**Osoa:** [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)



Bautista Lasa lizarratarrak 'Gure hizkuntza' kanta sortu zuen. UTZITAKOIA

# "Lizarragan ez dute inoiz kanta ahaztu"

Bautista Lasa lizarratarrak 1970ko hamarkadan sortutako 'Gure hizkuntza' abestia berreskuratu dute Ergoienako herrian Euskaraldiaren harira. Gaur, azaroaren 23an, 19:30ean, Euskaraldiaren hasiera ekitaldian berriz abestuko dute

**E. Carreño / E. Ruiz** LIZARRAGA

## 1 Noiz sortu zen abestia?

Kanta nik, beste hainbat pertsonekin batera, sortu nuen. Hurrekin kantatzen genuen. 1970ko hamarkadako kontu bat da, ikastolen hasiera horretan hasi ginen. Garai horretan

umeez ez zeukaten gaur egun euskararekiko daukaten egoera. Askoz hotzagoa. Euskara bultzatzeko zerbait egitea komenigarria zen. Orduan hasi ginen, nahiz eta erdal girotik sortu, pixkanaka euskaraz egiten. Giro euskalduna egin genuen eta aste-bukaeratan ateratzen ginen.

## 2 Zergatik da berezia abestia?

Gure hizkuntza euskara zen, eta euskaraz egin behar genuen. Gure jatorria hor zegoen. Eta euskara bultzatu behar genuen. Interesgarria iruditu zitzaigun kantaren bidez jendea eta hurrekin euskaraz egitera animatzea. Kanta goxoa zen. Askok kantatu

genuen, baina ez bakarrik orduan, hainbat ikastoletan musika irakasle izan nintzen eta kanta honen jatorria eta esanahia bultzatu nuen.

## 3 Lizarragara iritsi zen.

Lizarragan arazo berdina zegoen eta orduan hurrekin harreman handia neukan. Beti esaten zidaten kantu polit bat ekartzeko eta *Gure hizkuntza* kanta hori erakutsi nien. Askok gustatu zitzaien.

## 4 Noiz abesten zen?

Herri kanta bat da. Edozein kanta egiten dugunean beti lehenengo ateratzen zen. Kantaren bidez giro polita sortzen zen. Herrietan sortzen zen giroa.

## 5 Nola berreskuratu duzue?

Orain dela denbora gutxi Lizarragakoek galdetu zidaten ea gogoratzen nintzen kanta hartaz. Nola ez nintzen gogoratu behar! Eta horrela hasi ginen pixka bat bueltak ematen eta berriz grabatu diet.

## 6 Aitzakia Euskaraldia izan da.

Euskaraldirako egingo zutela komentatu zidaten eta laguntzeko prest nengoela esan nien. Giro polita sortzen zen eta elizan ere kantatu izan dut abesti hori. Lizarragan nik uste ez direla inoiz ahaztu kantaz. Zorionez euskararen egoera Nafarroan aldatu da, eta ekitaldirako polita izango zela ikusi zuten.

## 7 Beraz, Euskaraldiaren hasiera ekitaldian abestuko duzue.

Merezi duen momentu bat da. Lizarragan haur asko ez dago, adineko jendea dago gehien bat eta euskaldunak dira. Erdaraz

ez dira ongi moldatzen. Gazteek indarrarekin hartu dute euskara. Gure hizkuntza da. Betikoa. Gainera, Lizarragako euskara bada berezia.

## 8 Kanta ikasteko zerbait antolatuz duzue?

Ostiralean Lizarragara joango naiz eta entsegu bat egingo dugu atera baino lehen. Kantak lau estrofa ditu eta bi estrofa eginez gero kantatzen da denon artean. Lizarragan banatzen zuten estrofaka eta nik esan nien hobe zela binaka egitea. Ez da galduko, ez, utzi bakean / euskara bizirik dagoen artean. Lizarragan kanta oso ondo dakite eta talde handia dago kantatzen duena. Han egongo naiz. Denon artean giroa sortuko dugu.

## 9 Instrumenturen batekin abestu behar da?

Gure ahotsa da instrumenturik onena, hala ere, nik gitarra eramango dut. Giro berezia sortzen da gitarrarekin. Baina, bestela, herri kanta bat da eta ondo eta lasai abestu behar da. Instrumentua baina garrantzitsuagoa da kantak esaten duena ondo entzutea. Eta behar den bezala kantatzea. Gure kantarekin giroa sortzea da garrantzitsuena.

## 10 Zein da doinua?

Kanta alai eta polita da. Esanahia handia duena.

## 11 Eta gaur egungo egoerari egokitzen zaiona.

Bai. Askotan esaten ziguten Nafarroa Garaian dena politizatzen genuela. Esatea ere. Kanta garbia da, txukuna eta erraz kantatzekoa.

**gk**

**DISEINUA  
KOMUNIKAZIOA  
SARE SOZIALAK**

948 564 275  
gk@gkomunikazioa.eus

Garbi baduzu zer komunikatu nahi duzun, forma ematen lagunduko dizugu